

Eskoriatzako genero berdintasun- egoeraren diagnostikoa

[2024ko abendua]

Proiektu honen aholkularitza teknikoak
Emun Koop.E -k egin du



Aurkibidea

Hitzaurrea	3
Lege markoa	4
Metodologia	6
Diagnostikoa	10
Barne begirada	10
Udalaren osaera politikoa eta teknikoa	10
Udal komunikazioa	16
Kanpo begirada	21
Datu demografikoak.....	21
Sozioekonomia	26
Zaintza lan ez ordainduak.....	32
Kultura	36
Jaiak	38
Kirola	42
Euskara	43
Zahartzaroa	46
Gazteria eta hezkuntza (formala eta ez formala).....	49
Migrazioa eta aniztasuna	53
Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna.....	56
Gizarte zerbitzuak eta osasuna.....	57
Genero-berdintasuna	58
Aurrera begirako erronkak	68

Hitzaurrea

Eskoriatzako udalak berdintasunean foku berezia jarri nahi izan du oraingo honetan. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu etorkizuneko Eskoriatza irudikatu eta ondorengo hausnarketa egitea: zer nolako Eskoriatza nahi dugu berdintasunaren ikuspegitik?

Hori dela eta, berdintasunaren ikuspegitik tokiko errealitatea sakon ezagutzeko kezkatik sortu da diagnostikoa egiteko beharra eta gure errealitatea irudikatzen duen lehen argazkia atera nahi izan dugu. Une honetan Eskoriatzaren egoera antzeman nahi dugu, desberdinkeriak agertzen diren eremuak identifikatu eta gure herriaren oinarrizko kezkak zehaztu.

Ondorengo hiru fokuetan berezko atentzioa jarri nahi izan dugu. Alde batetik, zaintza erantzukizunak generoen artean nola banatzen diren ebaluatzea. Bestalde, herri mailan indarkeria matxistari dagokionez zein gabezia dauden ikusi eta arrisku faktoreak eta seinaleak identifikatzea. Azkenik, maskulinitate berri edo maskulinitate positibo batentzako lanak bultzatzea.

Hau oinarri hartuta, gure jendearen esperientziak hobeto ulertu nahi ditugu, egon daitezkeen desberdinkeriak identifikatu, eta herri inklusiboagoa eta bidezkoagoa eraikitzeke elkarrekin nola lan egin dezakegun aztertu. Modu honetan, berdintasun asmoetara ere hurbiltzen gara, baina hurbiletik begiratuta, gure kaleetan, familietan eta komunitate-harremanetan oinarrituta.

Diagnostikoa, egungo egoeraren azterketa gisa ez ezik, ekintzarako abiapuntu gisa ere proposatzen da. Gure indarguneak eta gure hobekuntza-arloak ezagutzeak aukera emango digu herrian benetako berdintasuna sustatuko duten politikak eta ekintzak planifikatzeko.

Espero dugu dokumentu honek gure jendearen ahotsak eta esperientziak islatzea, eta berdintasunezko etorkizun baterantz aurrera egiteko gida gisa balio izatea.

Eskerrak eman nahi dizkiegu prozesu honetan parte hartu duten herriko norbanako eta eragile guztiei. Zuetako bakoitzari esker izango ez balitz, foroetara joateko denbora hartu duzuelako, hausnarketak eta esperientziak partekatzeko, eta gure herriko berdintasunari buruzko ikuspegia emateko, lortutako emaitzek ez lukete gure komunitatearen errealitatea bere aniztasun osoan islatuko.

Eskoriatzako EH Bildu

Lege markoa

Arau esparruan, nazioarteko araudiak, eta Espainiako estatuko eta EAEko arau eta planek osatzen duten arau eremu zabalak babesten dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta hori erdiesteko politika publikoen beharra. Are gehiago, zuzenean udal berdintasun politiken garapenerako eginkizuna ere arautua ikus dezakegu xedapen horietako hainbatetan. Hala nola, honakoetan:

- Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako (2006).
- 3/2007 Lege organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako.
- EAEko 2/1988 legea, «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea» sortarazteari buruzkoa
- EAEko 1/2023 Legegintzako dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- EAEko 2/2016 Legea, Euskadiko Institutuzio Lokalei buruzkoa.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia

EAEko 1/2023 Legegintzako dekretuak toki administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasuna erreala izan dadin jarraitu beharreko printzipioak eta bete beharreko eginkizunak jasotzen ditu. Legedi horretan, tokiko berdintasun politiken norabidea ezartzeko elementu estrategiko gisa azaltzen da Berdintasun planen elaborazioa.

Horrez gain, lege horren arabera Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartu behar du. Plan horretan, modu koordinatuan eta globalean jasoko dira EAEko botere publikoen jarduna gidatuko duten esku-hartzeko ildoak eta zuzentarauak, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.

Hori horrela, egitasmo honetarako EAEko 1/2023 Legegintzako dekretua eta indarrean dagoen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia izango dira erreferentziazko arau nagusiak.

- Bukatzeko, aipatu EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiak 4 esku-hartze eremu dituela. Prozesu honetan zehar egindako azterketak bestelako egitura bat jarraitzen badu ere, bukaeran egindako lanaren eta 2030 Estrategiaren arteko zubia eraikiz, etorkizunerako erronkak esku-hartze eremu hauen arabera antolatuko dira. Izan

ere, horiek izango dira ondorengo Berdintasun Planean landuko diren erreferentziazko esparruak:

Barne eremua



Gobernu ona



Emakumeen
ahalduntzea

Kanpo eremua



Gizarte-antolaketa
bidezkoa,
berdintasunezkoa eta
jasangarria



Emakumeen kontrako
indarkeria matxistarik
gabeko bizitzak

Metodologia

Emunek, bere ia 25 urteko ibilbidean ikusi du era honetako prozesuetan, eta kultura aldaketa bati buruz ari garenez, emaitzez gain, prozesuak berak ere berebiziko garrantzia izaten duela. Izan ere, kultura berri bat eraiki nahi dugu, guztiontzat justuagoa eta berdintasunean oinarritua, eta kultura berri hori lortzeko bidean, diagnostikoaren faseak gaiari buruz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera paregabea eskaintzen du.

Hori horrela, diagnostiko txostena osatzerakoan arreta berezia jarri dugu ondorengo eremuetan:



Parte-hartzea



Prestakuntza, sentsibilizazioa
eta hausnarketa:




Erraztasunak

Prozesua zehaztean, ondo definitu dira parte-hartzaile bakoitzaren eta parte hartzeko sortu den eremu bakoitzaren helburuak. Gainera, proiektuaren aurkezpenean eta saio bakoitzaren hasieran, helburu horien berri eman da eta jarraitu beharreko arauak zehaztu dira.

Gerta daiteke, berdintasun-plana eduki arren, antolaketa-kulturak desabantaila-egoeran uztea emakumeak eta beste kolektibo batzuk. Horregatik, oinarritik hasi, eta hausnarketa sustatu dugu, diagnostikoaren fasean prestakuntza- eta sentsibilizazio-saioak eginez udal politikari zein langileekin.

Erraztasunak, berriz, tresnak, trebetasunak eta teknikak dira, talde-prozesuek eta banakoek garapen egokia izan dezaten. Erraztasunak emanez, norberaren helburuak eta ikuspegia lortzen laguntzen da, eta giro egokia sortzen da pertsonen arteko harremanetarako, konfiantzan eta komunikazio enpatiko eta errazean oinarrituta.

Berdintasun planen prozesuek fase nagusi hauek dituzte:



1. Fasea: aurrelanak edo lanen planifikazioa

Fase honen baitan, alde batetik prozesuaren planifikazio eta aurreikuspena burutu ziren. Horretarako, berdintasun zinegotziak, ingurumen teknikariak eta Emun Aholkularitzako teknikari batek osatutako talde motor bat sortu eta bildu zen.

Horrez gain, lehenengo fase honetan formazio saioa ere burutu zen, udal politikariekin eta udal langileekin. Saioa Emuneko aholkulari aditu batek eman zuen eta ondorengo ezaugarriak izan zituen:

- Helburuak: Proiektua kokatu eta gaiarekiko sentsibilizazioa landu.
- Parte hartzaileak: udal politikariak eta udaleko sail ezberdinetako langileak.
- Iraupena: 2 ordu.

2. Fasea: Gaur egungo egoeraren diagnostikoa

Fase honek bi atal nagusi izan ditu: datu bilketa eta txostena osatzea.

Diagnostikorako datu bilketa

Datu bilketa kuantitatiboa:



- Datu-base ezberdinetan argitaratutako datuen bilketa eta azterketa: EUSTAT, UDALMAP, BEHAGI, Udal Errolda, eta Emakunde, etabarren argitaratutako datuak baliatu dira.

Datu bilketa kualitatiboa:

Datu bilketa kualitatiborako erabilitako iturri nagusiak hiru izan dira:

- **Talde elkarrizketak:** Entzute aktiboan oinarritutako erdi egituratutako gidioen bidez egindako elkarrizketak izan dira. Guztira 6 elkarrizketa egin dira, horietako batzuk taldean burutu direlarik. Elkarrizketatuak 7 udal ordezkari, 2 udal langile eta arlo ezberdinetako 23 herritar (elkartegintzako emakumeak, elkartegintzako gizonak, talde feministak eta hezkuntza komunitateko kideak) izan dira. Egindako elkarrizketez gain, adineko emakumeekin, emakume migratuekin eta kiroleko eragileren batekin egitea aurreikusi zen. Arazo ezberdinak direla medio, ezin izan dira elkarrizketa horiek burutu.
- **Herritarrei galdetegia:** Galdetegia herritar guztiei zabaldu zaie, Eskoriatzako biztanleek berdintasuna nola bizi duten jakiteko, haien iritzia eta pertzepzioa jasotzeko. Galdetegia 2024ko maiatzak 27 eta ekainak 6 bitartean bidali eta jaso zen. Galdetegietan parte hartzeari buruzko datuak honako hauek dira:

Emakumeak	40
Gizonak	16
Ez bitarrak	0



- **Behaketa:** Kanpoko irudiaren eta kanpo-komunikazioaren euskarriak behatu dira, udalaren jardueran bereziki esanguratsuak diren euskarriak aztertu dira, dituzten hedadura eta izaera sinbolikoagatik.

Txostena osatu

Behin behineko diagnostiko txostena

Behin behineko diagnostiko txostena osatu da.

Kontrasteak

Behin behineko diagnostikoaren kontrasterako hiru lan saio burutu dira (herriko talde feministarekin, udal langile eta politikariek eta herritar eta herri eragileekin). Horietan guztira 27 pertsonak hartu dute parte (24 emakume eta 4 gizon). Horrez gain, online kontrasterako aukera ere zabaldu den arren, bide horretatik ez da ekarpenik jaso.

3. Fasea: Itxiera

Azken fase honetako zereginak prozesuaren ondorioak identifikatzea, prozesua bera baloratzea eta behin betiko txostena osatzea izan dira.

Diagnostikoa

Genero-berdintasunaren diagnostikoa herriko biztanleen arteko genero berdintasun-egoera aztertzean datza. Azken helburua berdintasun-plan bat diseinatzeko eta adosteko oinarri bat eskaintzea da, egungo egoera hobetzeko eta herrian berdintasuna lortzeko. Horretarako, aurrez azaldu bezala, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bildu eta aztertu da.

Diagnostikoaren emaitzak bi multzo handitan antolatu dira (barne begirada eta kanpo begirada) eta horren baitan, atal bakoitzak ondorengo egituraketa du:

- Eremu bakoitzari buruzko azalpen laburra eta Eskoriatzako datuak.
- Eremu batzotzari buruz bildu den iritzien eta bizipenen laburpena.
- Eremu bakoitzari buruzko ondoriozk, aurrez jasotako datuak eta informazio kualitatiboa kontuan hartuta.

Horrez gain, txostenaren amaieran etorkizunerako identifikatu diren erronkak jaso dira.

BARNE BEGIRADA

UDALAREN OSAERA POLITIKOA ETA TEKNIKOA

Udalaren osaera politikoa eta teknikoa garrantzitsua da genero-berdintasuna erakundearen oinarrian dagoen printzipioa den aztertzeko eta hura integratzeko aukerak identifikatzeko. Gainera, azterketa honek udalean ematen den aniztasunaz eta ardura banaketaz gain, genero arabera segregazio bertikala eta horizontala eta bestelako datuak ere erakutsiko dizkigu.

Udalaren osaera politikoa

Eskoriatzako udalaren ordezkari politika alkateak eta 10 zinegotzik osatzen dute. Talde politikoen osaerari dagokionez, osaera orekatua dela esan daiteke: taldeetako bateko kideen %50a emakumezkoak eta %50a gizonezkoak dira; eta beste taldean, aldiz, banaketa %43 eta %57koa da, hurrenez hurren.


Talde politikoa	Talde burua				Taldekideak (buruak barne)			
	Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
EH Bildu	0	0	1	%100	3	%43	4	%57
EAJ	0	0	1	%100	2	%50	2	%50
Guztira	0	0	2	%100	5	%45	6	%55

Antolaketa politikoari erreparatzen badiogu, 4 informazio batzorde daude. Batzorde horietako buruak generoaren arabera orekatuta daude, 2 emakumezkoak eta 2 gizonezkoak direlarik. Gaien banaketari dagokionez, batzordeburu gizonen eta emakumeen esku daudenen artean oreka ikusi daiteke, hau da, tradizionalki egingo litzatekeen banaketatik aldentzen dira.

Udal batzordeak	Batzorde burua		Batzordekideak	
	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona
Gizarte zerbitzuak eta kirola			2	1
Kultura, euskara, hezkuntza eta gazteria			1	2
Lurralde eta Garapen ekonomiko jasangarria			1	2
Antolaketa eta Ogasuna			0	3


Udalaren osaera teknikoa

Eskoriatzako udalean, udalak kontrataturik, modu jarraian 31 pertsonak egiten dute lan. Horrez gain, behin behineko kontratuarekin beste 3 langile daude. Modu jarraian udalean aritzen diren 31 pertsona horien artean 17 emakumezkoak dira eta 14 gizonezkoak.




Hemen, nabarmentzekoa da hainbat zerbitzu, hala nola, udal eraikinen garbiketa eta etxez etxeko laguntza, azpikontratazio bidez burutzen duela Eskoriatzako udalak. Hori horrela, ondoren aurkeztuko diren datuetan lan horiek egiten dituzten langileak kontuan izango ez badira ere, irakurketa orokorra egiterakoan presente izan beharreko datua da.


Udalak kontratatutako langileak generoaren eta arloaren arabera udalean zein toki hartzen duten aztertzen badugu, argazkia ondorengoa da:



Kontratu motari dagokionez, urte osoan udalean dabilen langileen %96,66a behin betiko lanpostua du, hau da, funtzionarioak edo kontratu mugagabedun laboralak dira, eta horietako %55,1 emakumezkoak dira. Behin behineko kontratuarekin pertsona bakarra dago, eta emakumezkoa da.




Bestalde, udaleko langileen jardunen ehunekoari erreparatzen badiegu, ondorengo argazkiarekin topo egiten dugu:



Bost dira jardun partziala duten langileak, eta horien artean lau emakume eta gizon bakarra ikusi ditzakegu. Aipatu, jardun partzial bik dutela zaintza ardurekin lotura. Gainerako langile guztiak jardun osoan daude; guztira 13 emakumezko eta 12 gizonezko.

Bukatzeko, udal langileak kategoriaren eta generoaren arabera aztertzen baditugu, maila altuenetan emakumezkoen presentzia nabarmenagoa dela ikusi dezakegu (A2 kategorian %76,5a emakumezkoak dira) eta bajuenetan, ordea, gizonezkoak dira denak. Hala ere, hemen eraikinen garbiketan dabilzan emakumeak eta etxez etxeko laguntza zerbitzuan dauden emakumeak ere gogoan izatea garrantzitsua da, izan ere, horrek argazkia pixka bat aldatzen du.



GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN LABURPENA:


- Udalean ez dago berdintasun teknikaririk eta hutsune horri lotutako zenbait egoera identifikatu dira: ez dago berdintasunean formatutako langilerik, politiketan genero ikupsegia txertatzeko ezjakintasuna dago, udaleko beste teknikari batek kudeatu behar izan ditu orain arteko beharrak...
- Hala ere, udalean gaiarekiko sentsibiltatea badagoela jaso da, nahiz eta ez dagoen ezer egituratua. Egiten den guztia langileen interes pertsonaletik egiten da.
- Etxez etxeko zerbitzuaren baldintzak aldatu nahi dira eta Aretxabaletakoekin parekatu, enpresa berdinarekin lanean ari direlako. Gero eta eskaera gehiago daudela azpimarratu da
- Horrez gain, genero-ikuspegia zeharlerrotasunez lantzearen beharra ere jaso da iritzi ezberdinetan. Nahiz eta, nondik hasi ere zaila ikusten duten.
- Jaiei begira mugimendu feministarekin egindako protokoloa positibotzat baloratu da eta hurrengo urteetan bide berdinetik aurrera pausuak eman nahi dira.

*“Prebentzioko teknikaria
ibili da berdintasuneko
kontuak kudeatzen”*

*“Modu egituratuan ez
dago, egiten den guztia
norberari sortzen zaion
interes pertsonaletik
abiatuta da. Sentsibiltate
puntu bat badago, nola
gauzatzen den hori ez
dakit”*

*“Aurten, mugimendu
feministarekin batera,
telefonoa 24 orduz aktibo
egongo da”*

Bukatzeko, herritarrei herriko bizitza sozialean eta politikoan (ez bakarrik udalean) emakumeen eta gizonen presentziaren inguruan pertzepzioa galdetu zaienean, gizonen iritziz, emakumeen iritziz baino orekatuagoa dago. 1etik 5erako eskalan gizonek bataz beste 3,38 puntuko adostasuna adierazi dute, emakumeek, aldiz, 2,95koa.



ONDORIOAK

- Udaleko osaera politikoari dagokionez, gizon eta emakumeen kopurua orekatua dela esan daiteke.
- Udal gobernuako batzordeburuen banaketak, oro har, genero ikuspegitik orekatuta daudela esan dezakegu.
- Horrez gain, udal eraikinen garbiketa eta etxez etxeko laguntza zerbitzua azpikontratazio bidez bideratzen da, kontratazio horien baldintzak berrikusiko dira epe motzean. Etorbizunean zerbitzuak zuzeneko kontratazio bidez asetzeko aukera arakatu beharreko bide interesgarri bat izan daiteke.
- Lan kategoria altuena duten lanpostuetan emakumeak dira gehiengoa. Eta baxuenetan guztiak gizonezkoak dira (dena den, hemen udal eraikinetako garbitzaileak eta etxez etxeko laguntzan lan egiten duten emakumeak ere kontuan izatea beharrezkoa da argazkia osatzeko).

- Udaletik berdintasun politikak garatzeko eta udal langileek zeharlerrotasunez berdintasuna beren lanean integratzeko zailtasunak identifikatu dira, batez ere, ezagutza faltari eta erreferente tekniko faltari lotutakoak.
- Udalaren eta mugimendu feministaren arteko elkarlana positibotzat baloratu da, beraz, harreman horretan sakontzea interesgarria izango litzateke.

UDAL KOMUNIKAZIOA

Komunikazio-praktiken analisiak udalak komunikazio praktketan aukera-berdintasunerako konpromisoa erakusten duen erakutsiko digu. Horretarako, udalak zein estrategia erabiltzen dituen eta zein hobetzeko esparru identifikatzen diren aztertuko da.

Udal baten irudiak pertsonen haren inguruan sortzen duten iritzian oinarritzen da, erakundeak ematen duen informazioaren bidez. Aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoak udalaren irudiaren parte izatera igaro behar du, eta horretan eragina izango du hizkuntzaren eta proiektatzen diren irudien erabilera ez-sexista eta inklusiboa egiteak.

Udal baten irudian eta hizkuntzan herritarrak nola islatzen diren diagnostikatzeko, beharrezkoa da:

- Udalak sortzen dituen komunikazioak berrikustea, bai barnekoak (zirkularrak, informazio-oharrak, lanpostu hutsen iragarkiak), bai kanpokoak (web-orria, sare sozialak, enplegu-eskaintzak, eskuliburuak, memoriak).
- Genero gramatikalen erabilera berrikustea, maskulino orokortzailea ez erabiltzeko joera ezarriz, beste genero identitateak ezkutatzeko dituelako eta ez direlako hartzaile sentitzen.
- Irudiak berrikustea, estereotipo sexisten arabera defini ez daitezen, adibidez, emakumearen gorputza erabiltzen duten edo genero-estereotipoak transmititzen dituzten iragarkiak, hala nola, gizonak eta emakumeak rol profesional estereotipatuetan aurkezten dituztenak (emakume idazkaria/gizon zuzendaria, gizon medikua/emakume erizaina, emakume administraria/gizon mekanikoa...).

WEB ORRIA

TESTUA

Web orrian ez dago testu luzerik, testu gehiena albisteetan ageri da. Sexismoaren zantzurik ohikoenak gaztelaniazko ereduan maskulino generikoa erabiltzean agertzen dira. Nolanahi ere, erabilera orokor hori saihesteko borondate eta saiakera bat ere identifikatzen da, horretarako hainbat estrategia-praktika erabiltzen direlarik. Honako adibide hauetan ikus daitezke:

Maskulino generikoaren erabilera

- “Presidente de la comisión”
- “Atención personalizada para que el usuario se...”
- “Listado definitivo de nombramiento de candidatos a jurado”
- “...y el que lo prefiera...”
- “Proporcionar al ciudadano la posibilidad...”
- “...mucho que ofrecer al visitante...”

Hizkuntza ez sexistaren erabilera

- “Secretaría”
- “Se exponen al público...”
- “Persona de contacto”
- “Datos de la persona denunciante”
- “Técnico/a; Administrativo/a; Trabajador/a...”

[Administrativo/a H@ZI – Servicios Sociales/Cultura/Euskera](#)

[Trabajador/a Social \(TS 2\)](#)

[Técnico/a de Desarrollo Ambiental](#)

[Técnico/a de Desarrollo Local](#)

[Técnico/a de juventud](#)

[Ingeniero/a Técnico/a de Obras Públicas \(ITOP 2\)](#)

[Informático/a](#)



JUZGADO DE PAZ



MUSIKA ESKOLA



JUBILAD@S



Udaletxea
F. Eskoriatza plaza 1
20540 Eskoriatza

Teléfono 943 71 31 36

Responsable político
Dorleta Sologaistoa Agiriano
dsologaistoa@eskoriatza.eus

Trabajadoras del servicio

Trabajadora social
Agurtzane Altube Oianguren
agurtzane@eskoriatza.eus

Trabajadora social
Beronika Solaguren Martin
beronika@eskoriatza.eus

Técnica de prevención
Myriam Beltrán de Heredia
prebentzioa@eskoriatza.eus

Administrativa
Aintzane Elorza Azkoitia
aintzane@eskoriatza.eus

Bestalde, interesgarria da batzuetan udala bigarren pertsonan (zuka) bideratzea web-orriaren erabiltzailearengana: gertutasuna transmititzeaz gain, irteera egoki bat da, gaztelaniazko testuetan, maskulino generikoa edo beste aukera erredundante batzuk etengabe erabiltzea saihesteko.

IRUDI GALERIA

Webgunean agertzen diren irudietan, ia ez dago pertsonen edo pertsona-taldeen presentziarik, eta irudiak ez dira sexistak: hau da, gizonen eta emakumeen proportzioak mantentzen dira, eta ez da genero-rolak edo jarrera sexistarik errepikatzen. Oro har, espazioak eta objektuak erakusten dituzten irudiak gailentzen dira.



SARE SOZIALAK

Sare Sozialetako kontuetan (Facebook eta Twitter) Eskoriatzako udalak publikazio guztiak elebitan egiten ditu eta web orrialdean publikatutako sarrera berdinak argitaratzen dira. Iruditeriari dagokionez, webgunean bezala, oro har ez dira pertsonen edo pertsona-taldeen argazkiak ageri, eta agertzen direnean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta zaindua aurkitu dezakegu.



UDALAREN APP-A

Aplikazioan ere sexismoaren zantzurik ohikoenak gaztelaniazko ereduan maskulino generikoaren erabilera da, batez ere albisteetan. Dena den, bide honetan ere, erabilera orokor hori saihesteko borondate eta saiakera bat identifikatzen da, horretarako hainbat estrategia-praktika erabiltzen direlarik. Adibideak:

Maskulino generikoaren erabilera

- ¬ *“Residencia de ancianos”*
- ¬ *“Bomberos”*
- ¬ *“Los niños y jóvenes...”*
- ¬ *“Los dantzaris...”*

Hizkuntza ez sexistaren erabilera

- ¬ *“Buzón ciudadano”*
- ¬ *“...los niños y las niñas...”*
- ¬ *“...entre los y las eskoriatzarras”*
- ¬ *“personas asistentes”*

Iruditeriari dagokionez, aurrez azaldutako joerari jarraiki, app-ean ere gizonen eta emakumeen presentzia orekatua eta zaindua da.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO

IRITZIEN LABURPENA:

- ⇒ Udalean ez dago hizkuntza ez sexistarako irizpiderik adostuta, langile batzuk egiten dute saiakera, baina beraien interesak (eta beharrak) bultzatua.

ONDORIOAK

- Aztertu diren euskarriak lagin bat besterik ez dira. Azterketa horren bidez, udalaren komunikaziorako lehen hurbilketa bat egin nahi izan da, genero-ikuspegia nola txertatu den ikusteko. Interesgarria litzateke, plana inplementatzen den bitartean, udalaren komunikazio euskarrien analisia diseinatzea eta, hala dagokionean, egokitzea, indarrean dauden euskarrietan genero-berdintasuna bermatzeko.
- Gaztelerazko testuetan maskulino generiko edo orokortzailearen presentzia dago, nahiz eta hizkuntza ez sexistarako saiakera bat ere igartzen den.
- Ez dago komunikazio ez sexistari buruzko hizkuntza-irizpiderik, eta komenigarria litzateke horiek jasotzea, azaltzea eta zabaltzea.
 - Interesgarria da lan-ildo hori ekintza-planean txertatzea.
 - Ez dago komunikazio-gida edo -protokolorik. Komenigarria litzateke hizkuntza-irizpide estandarrak sortzea eta horiek langile zein politikarien artean sozializatzea lan-tresna gisa, aurrerantzean sortuko diren euskarrietan ere berdintasunezkoak izatea erraztuko bailuke. Ildo horretan, lagungarria izan liteke langileen artean hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko prestakuntzak egitea.
- Iruditeriari dagokionez, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua zaintzen da.
- Hizkera eta komunikazio ez sexistan trebatzeaz gain, komunikazio inklusiboago baten aldeko jauzia ere egiten joatea komeni da. Sexismoa ez da hizkuntzan eta hizkeran eragina duen diskriminazio sistema bakarra. Hizkuntzaren erabilera begirada kritikoz aztertzen badugu eta hizkeraren bidez berdintasuna eta aniztasuna ikusarazteko apustua egin badugu, ezinbestean erreparatuko diogu beste botere sistemei: arrazakeriari, heterosexismoari, transfobiari eta kapazitismoari, besteak beste. Gure gizartearen erronka da gai hori ere begirunez tratatzea eta hobekuntzak egitea.


KANPO BEGIRADA

DATU DEMOGRAFIKOAK

Herriaren egituraketa demografikoak eta bilakaera historikoak eragina izan dezake gizonen eta emakumeen errealitatean. Hori aztertu eta diagnostikoaren oinarri izango den herriari buruzko oinarritzko datuak jaso ditugu.



Biztanleriaren hazkundera eta zahartzea

2023. urtean Eskoriatzako biztanle kopurua 4.193 pertsonakoa zen: 2.115 gizonezko eta 2.078 emakumezko. Datu horiek izan duten bilakaerari erreparatzen baldin badiogu, bi ondorio nagusi azpimarratu ditzakegu: alde batetik, azken bi hamarkadetan biztanleriaren goranzko joera bat hauteman daiteke, 2004tik 2023ra herriko biztanleria %8an hazi delarik. Horrez gain, nabarmentzekoa da gizonezkoen kopurua beti emakumezkoena baino handiagoa izan dela (ezberdintasuna oso handia ez bada ere).



(Iturria: Eustat)


Hala ere, gizonezkoen kopurua handiagoa dela baieztatu eta identifikatu badugu ere, garrantzitsua da herriko piramide demografikoari erreparatu eta sexu bakoitzak adinaren arabera zein errepresentazio duen aztertzea, izan ere, genero-ikuspegitik gako garrantzitsuak emango dizkigu horrek.



(Iturria: Eustat)

Esan bezala, piramideetan sexuari erreparatzen badiegu, ondorengoak identifikatzen da: Eskoriatzako biztanlerian, oro har, gizonezkoen kopurua gailentzen bada ere, herriko zaharrenen artean joera hori aldatu egiten da. 2023an 70 urte baino gehiagoko 715 pertsonetatik 320 (%44,75a) gizonezkoak dira eta 395 (%55,25a) emakumezkoak. Eta, arrakala are gehiago handitzen da adinean zenbat eta gorago egin, esaterako, 85 urtetik gorako biztanleriari erreparatzen badiogu 94 dira adin horietako emakume eskoriatzarrak (%60a) eta 60 gizonezkoak (%40a). Datu honek, noski, emakumeen eta gizonen bizi esperantzaren arteko tarteari erantzuten dio. Baina horrez gain, zaintza beharrak eta bakardadea ere presente egoten diren adina izan daitekeela kontuan hartuz, tentuz aztertzeak pistak azaleratzen ditu. Zahartzaroaren atalean helduko diogu berriz gaiari


Gainera, Eskoriatza zahartzen ari den herria ere bada, izan ere, 65 urtetik gorako pertsonen herriko populazio osoaren gaineko proportzioak goranzko joera nabarmena du, eta gazteenen kasuan ordea joera beheranzkoa da (nahiz eta modu lausoagoan izan):



(Iturria: Eustat)

Eskoriatzako biztanleria jaioterriaren arabera

Eskoriatzarrek jaioterriaren arabera azken urteetan izan duten eboluzioari erreparatuz gero, baieza dezakegu EAEn jaiotako eta Espainiar Estatuan jaiotako (EAEtik kanpo) herritarren proportzioak behera egin dutela (egun %74koa eta % ia 16koak direlarik, hurrenez hurren); eta, Espainiar Estatutik kanpo jaiotako pertsonen proportzioak gora egin du, azken bi hamarkadetan 6 puntu hain zuzen.




(Iturria: Eustat)

2023 urtean espainiar estatutik kanpoko 36 nazionalitate ezberdinetako pertsonak zeuden Eskoriatzan. Multzo handiena lau nazionalitatetako pertsonak osatzen dute: Portugal, Pakistan, Maroko eta Kolonbia. Kolonbiako herritarrek bestelako nazionalitatea duten herritarren %16a osatzen dute, nazionalitate portugaldarra daukatenek %14,8a,

pakistandarrek %13,8a eta marokoarrek %12,4a. Ondoren, %4,5 eta %6,5 artean kokatzen dira Argeliako, Honduraseko eta Errumaniako nazionalitatea daukatenak (Iturria: Udal errolda).


Hori horrela, azken urteetan Eskoriatzara bizitzera etorritako pertsonen sexuari erreparatzen baldin badiogu, urtearen arabera gora beherak ikusi daitezke, baina betiere gizonen kopurua emakumeena baino zertxobait handiagoa izan da, azken urteetan orekatzera jo duelarik.



(Iturria: Udalmap)

Dena den, beharrezkoa da herrialdeen eta sexuaren araberako azterketa sakonagoa egitea, migrazio mugimenduen eta horiek sexuarekin duten loturen argazki zorrotzago bat izateko. Azterketa hori *“Migrazioa eta kultur aniztasuna”* atalean egingo da.

Eskoriatzarrak ikasketa mailaren arabera



(Iturria: Udalmap)

Bukatzeko, eskoriatzarren ikasketa mailari dagokionez, ikasketak dituen biztanleriaren kopuruak nabarmen egin du gora azken hamarkadetan. Gaur egun, 10 urte edo gehiagoko biztanleriaren %64,4ak bigarren mailako ikasketak dituelarik. Gainera, biztanleria tarte horren %25,2ak lanbide ikasketak ditu eta 10 urte edo gehiagoko %20,7ak unibertsitate ikasketak. Dena den, datu hori ez dugu sexuaren arabera bereizita eskuratu, beraz, ezin esan dezakegu ikasketa mailan arrakalarik dagoen.

ONDORIOAK

- Eskoriatza azken hamarkadetan gutxinaka haziz joan den herri bat da. Dena den, biztanleria gutxiko herri bat izaten jarraitzen du, 2023an 4.193 biztanlek osatzen zutelarik.
- Herriko biztanleria, hegoaldeko herrialdeetako joerari jarraiki, zahartzen ari da. Horrek behar eta hutsune ezberdinak azaleratu ditzake, horietako asko zaintza beharrekin loturikoak. Gaur egun zaintza lanak emakumeekin lotzen diren ardurak izanda, beharrezkoa da beharrei erantzuteko erabiltzen diren estrategiek emakumeen bizitzetan zein eragin duten aztertzea eta beharrak asetzeko bide parekideak bilatzea.
- Gainzahartzean emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa dela identifikatu da. Errealitate horretatik eratorritako beharrak identifikatzea interesgarria litzateke, emakume horiek bakardade egoeran dauden, behar fisiko zein sozialak asetuta dituzten, etab. ezagutzeko.


- Herrian jaioterria Espainiar Estatutik kanpo duten pertsona kopuruak gora egin du azken urteetan, eta gaur egun herritarren %10 dira. Errealitate horrek kultur aberastasuna kudeatu eta kulturartekotasuna sustatzeko ekintzak egin beharrean jartzen ditu herritar guztiak. Garrantzitsua litzateke, bide horretan emakume migratuen behar espezifikoak ezagutu eta kontuan hartzea (aurrerago sakontasun handiagoarekin aztertuko ditugunak).

SOZIOEKONOMIA

Herriko datu sozioekonomiko nagusiak aztertu dira, horiek genero-berdintasunarekin duten loturan arreta jarritz. Azterketa honek, herrian ematen den segregazio horizontala, errenta arrakala eta bestelako adierazle sozioekonomikoen inguruko errealitatea ezagutzea ahalbidetu digu.


Eskoriatzako egitura sozioekonomikoari erreparatzen badiogu, baieztatu daiteke industria herria dela, nahiz eta zerbitzuen sektoreak ere pisu nabarmena duen. Balio Erantsi Gordina sektoreka aztertzen badugu, ikusi dezakegu erdia industria sektoreak sortzen duela (%49,97). Industria sektorearen atzetik zerbitzu sektoreak antzerako pisua du (%46,32) eta azkenik, eraikuntza sektorea eta nekazaritza eta arrantza sektoreak daude indar nahiko txikiarekin (%2,71 eta %1, hurrenez hurren).

Nabarmentzekoa da, Eskoriatzako argazkia probintziako edota erkidegoko argazkitik urrundu egiten dela, izan ere, bertan, industria sektoreak duen presentzia aipatutakoetan baino nabarmen handiagoa da. Bide horretan, esan beharra dago, Eskoriatza Debagoienako eskualdean kokatzen dela eta historikoki industriak presentzia handia eduki duela, izan ere, gaur egunera arte heldu da, eskualde eta baita herri mailan ere. Bigarren sektorearen nagusitasunak inpaktu zuzena eduki dezake herrian enplegua duten eta ez duten biztanleen profilean, beraz, aurrerago aztertuko da puntu hau.




(Iturria: Udalmap)

Enplegua duten biztanleen sektorekako datuei erreparatzen badiegu, argazkia pixka bat aldatzen da, izan ere, zerbitzu- eta eraikuntza-sektoreek hartzen duten pisuak gora egiten du (%53,61 %4,54, hurrenez hurren) eta industria sektoreak ordea puntu batzuk behera egiten du behera (%41,01). Dena den, industria sektorean enplegatuta dagoen pertsona kopurua eskualdekoa, lurraldekoa eta erkidegokoa baino handiagoa izaten jarraitzen du.




(Iturria: Udalmap)

Eskoriatzako jarduera-tasari dagokionez, gizonetzkoena (%52,8) emakumezkoena (%47,6) baino 5,2 puntu altuagoa da. Dena den, biak eskualdekoak eta lurraldekoak baino pixka bat altuagoak dira.



(Iturria: Eustat)


Enplegu tasari erreparatzen badiogu, hemen ere antzerako argazkia aurkitu dezakegu, izan ere, Eskoriatzako emakumeen enplegu tasa (%50,6) gizonetzkoena (%57,6) baino txikiagoa da (7 puntu); baina, biak dira eskualdekoa eta lurraldekoa baino pixka bat altuagoak.



(Iturria: Eustat)


Bestalde, langabezia datuak begiratzen baditugu, 2022an langabezia tasa 7,2koa izan zen eta esan behar da azken urteetako eboluzioari erreparatuta, 2016 eta 2018 artean 12,3tik 7,5era jaitsi zen arren, gerora 7aren bueltan mantendu izan dela. Gizonen eta emakumeen artean,

aztertutako urteetan, 2-3 puntuko diferentzia mantentzen da, emakumeen tasa handiagoa delarik.




(Iturria: Eustat)

2022ko langabezia tasa eskualdekoarekin alderatzen baldin badugu, ikusi daiteke oso antzekoa dela 0,1eko diferentzia dago emakumeen tasen artean eta 0,3koa gizonenen artean. Lurralde historikokoarekin alderatzen badin badugu, Eskoriatzan pixka bat txikiagoa da (emakumeena 0,9 puntu txikiagoa eta gizonena 0,3).



(Iturria: Eustat)

Aztertutako datu eta adierazleek (eta aztertu gabe utzi ditugun beste hainbatek) eragin zuzena dute, noski, aberastasunaren banaketan. Eskoriatzako biztanleriaren batez besteko errentan arreta jartzen badugu ikusi dezakegu azken urteetan honek goranzko joera izan duela, baina beti mantendu izan dela emakumeen eta gizonen errenten artean alde nabarmen bat. Azken datua kontuan izanda (2021ekoa), emakume eskoriatzarrek batez beste gizon eskoriatzarrek baino 7.333 euro gutxiagoko errenta osoa dutela ikusi dezakegu, hau da, arrakala %26,4koa da.




(Iturria: Udalmap)

Datu hori eskualde eta lurraldekoarekin konparatzen badugu, arrakala txikiagoa dela esan dezakegu, izan ere, Debagoienan bataz besteko errentan ematen den arrakala %31koa da eta Gipuzkoan ordea %34koa.

2022	ESKORIATZA	DEBAGOIENA	GIPUZKOA
Emakumeak	20.428,00 €	20.337,00 €	19.497,00 €
Gizonak	27.761,00 €	29.434,00 €	29.511,00 €
Bataz bestekoa	24.100,00 €	24.824,00 €	24.341,00 €
Arrakala	%26	%31	%34

(Iturria: Eustat)

Bukatzeko, Eskoriatzan pobrezia eta gizarte-bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonen profilei hurbilketa bat egiteko helburuarekin, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrei erreparatuko diegu. Hemen, aipatu, 2023. urtean 68 pertsonak jasotzen zutela aipatutako errenta, eta gizonen eta emakumeen kopurua antzerakoa zela (36 eta 32, hurrenez hurren). Horrez gain, titularren 36 atzerritarrak ziren eta 32 ez atzerritarrak.



(Iturria: Behagi)

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN LABURPENA:

- ⇒ Eskoriatza Debagoienan kokatzen da eta ikusi dugun bezala, industriad beteriko eskualdea da. Industria enpresa horiek kooperatibak dira gehien bat eta sorreratik ezarri zituzten balioengatik eta sortu zuten enplegu motagatik, emakumeen presentzia enpresetan nabarmen areagotu zen.
- ⇒ Sektore nagusien artean ez badago ere, Eskoriatzan landa eremua presente dago eta bertan dauden emakumeen errealitateak ezagutzea beharrezkoa da.

“Hemen zortea izan dugu, kooperatibek emakumeak lan munduan integratu dituzte”

ONDORIOAK

- Eskoriatzako egitura ekonomikoa industria eta zerbitzuen sektorean oinarritzen da. Gainera, enplegua duten biztanleen gehiengoa ere sektore horietan lan egiten du.
- Aipagarria da industria sektoreak Eskoriatzan eta Debagoiena inguruan duen pisua, lurralde historikoarekin eta erkidegoarekin alderatuz, ia bikoitza da.
- Landa eremuan mugitzen diren emakumeen errealitateak eta beharrak jasotzea interesgarria izango litzateke herriko genero berdintasunaren begirada osatzeko.
- Enplegu-tasari erreparatzen badiogu, herriko emakumeen tasa (%50,6) gizonezkoena (%57,6) baino txikiagoa da (7 puntu); baina, biak dira eskualdekoa eta lurralde historikokoa baino altuagoak.
- Langabezia-tasan emakumezkoena gizonezkoena baino 1,9 puntu handiagoa da.
- Bataz besteko errentari erreparatuta, Eskoriatzako errenta Debagoienakoa eta Gipuzkoakoa baino pixkat bajuagoa da. Emakumezko eta gizonezkoena aztertuz, bataz bestekoaren jaitsiera gizonezkoenak eragiten duela ikusi daiteke, bai eskualde mailan eta baita erkidegoan. Hala ere, eskoriatzarren errenten artean %26ko arrakala dago (Debagoienan %31 eta Gipuzkoak %34).

ZAINTZA LAN EZ ORDAINDUAK

Etxeko eta zaintza lanen antolaketak eragin zuzena du herriko berdintasunari dagokion errealitatean. Atal honetan errealitate horren hurbilpen bat egin dugu, horretarako datu gutxi baditugu ere, eduki kualitatiboz elikatuko da gehienbat azterketa.

Gaur egun, ez dugu Eskoriatzako herritarren denboraren erabileraren eta zaintza lanen daturik. Dena den, EAEko datuei¹ erreparatzen baldin badiugu Eskoriatzako errealitatera hurbiltzeko lagungarri zaigun hainbat informazio aurkitu dezakegu:

Alde batetik, zaintzarako eszedentziei dagokienez, 2021ean seme alaben zaintzarako hartu ziren eszedentzien %69,5a emakumeek hartu zituzten eta senitartekoen zaintzarako eszedentzien kasuan %73,6a da horiek hartu zituzten emakumeen portzentaia.

Horrez gain, biztanleria landunak etxeko eta zaintza lanak egiten ematen dituen orduei dagokienez, ondorengo argazkiarekin egiten dugu topo:



¹ Zifrak 2022 – Emakumeak eta gizonak Euskadin Emakundek argitaratutako txostena

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Aldea
Etxeko lanak	1,8 ordu	2,1 ordu	1,6 ordu	-0,5 ordu
Seme-alaba adingabeak zaintzea	4,2 ordu	4,9 ordu	3,5 ordu	-1,4 ordu
Mendeko pertsonak zaintzea	1,8 ordu	2,2 ordu	1,4 ordu	-0,8 ordu

(Iturria: Zifrak 2022 – Emakumeak eta gizonak Euskadin Emakundek argitaratutako txostena)

Ondorioz, datuek azaleratzen dutenez, etxeko eta zaintza lanetan gizonezkoek egunean emakumezkoek baino ia 3 ordu gutxiago ematen dituzte.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN LABURPENA:



Zaintzari lotutakoak elkarrizketa ezberdinetan aipatu dira, erpin asko dituen gaia izanik, guraso, aitona-amona, zaintzaile edota hezitzaileen iritziak jaso ditugu. Horrez gain, herritarrei zabaldutako galdetegian ere hainbat izan dira gai honekin lotutako ekarpenak:

- Gaur egun zaintza lanen banaketak orekatze bidean daudela uste da. Dena den, oraindik, ardura hori gehienbat emakumeen gain dagoela baieztatu da behin baino gehiagotan. Gainera, desoreka hori handitu egiten da zaintza arduren planifikazioaz hitz egitean, izan ere, horiek ia erabatean emakumezkoek egiten dituztela baieztatu dute elkarrizketatuetako askok.
- Ezkerreko grafikoan ikusi dezakegu, galdetegia erantzun dutenek uste dutela etxeko eta zaintza lanak ez direla modu orekatuan banatzen, 5etik 2,3ko adostasun maila erakutsi dute eta. Gainera, emakumeen pertzepzioa gizonena baino bajuagoa da. Honek, konfirmatu dezake emakumeen gainkargaren sentrazioa.
- Emakumeek bere gain ardura guztia hartzeko joera ere badutela aipatu da, eta ingurukoei edo bikotekideei batzuetan ez dietela ardura hori hartzen uzten. Beraz, lan horiek askatzen ikasi behar dutela. Adinarekin lotu da ideia hau, nagusienei gehiago kostatzen omen zaiela lan batzuk ez egitea.
- Zaintza lanek herriko bizitza soziopolitikoan parte hartzea baldintzatzen dutela ere baieztatu da hainbat alditan. Galdetegian ere horren inguruko informazioa eskuratu zen eta eskumako grafikoan ikusi daiteke emakumeen eta gizonen aisialdirako denboraren orekaren inguruko herritarren iritzia. Gizonen iritziz, 1-5 eskalan, emakumeek eta gizonek denbora berdina daukatenaren esaldiari 2,88ko puntuazioa eman zioten, emakumeek, aldiz, 2,4koa. Ez dira puntuazio altuak, baina bereziki azpimarratzekoa da gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea.
- Horrez gain, seme alaben zaintzari dagokienez, espazio publikoan gurasoen presentzia nahiko orekatua dela aipatu da, baina horrekin batera, etxe barruetan eta arestian aipatutako planifikazioan desorekak antzeman daitezkeela. Ikastetxeetan, egunerokoan, ama gehiago ikusten direla aipatu da, adibidez.
- Zaintza beharrei erantzun pribatua ere ematen zaie herrian, nagusientzako egoitza, etxez etxeko zerbitzu pribatua edota kontratazio zuzenaren bidez.
- Zaintzak behar duen prestigioa hartzearen eta instituzioek dagokion lekua ematearen garrantzia aipatu dute elkarrizketatuek.
- Zaintza mahai bat sortzeko proposamena jaso da, non zaintzari lotutako persona eta eragile ezberdinek parte hartuko duten (zainduak, zaintzaileak, instituzioak, udala, sindikatuak) eta zeina entzuterako espazioa izango den eta zaintzarekin lotutako behar eta erronkei modu integral eta koordinatu batean erantzutea erraztuko duen.

*“Ume txikiak dituzten bikoteetan
gizonek erraztasun handiagoa
dute asteburu libre bat
eskatzeko”*

“Astebeteko greba egin nuen etxean”

*“Esan behar zaie, esatean egiten dute,
baina ez dute ikusten”*

“Zaintza eremuan desoreka dago”

*“Gurasoen aldetik, gizonen
presentzia gora joan da. Gero,
lana nork ateratzen duen beste
kontu bat da”*

*“Errua ere gurea da, lan batzuk askatu
behar ditugu. Gure belaunaldikoek
gutxienez...”*

ONDORIOAK

- Zaintza eta etxeko lanak emakumeen bizitzekin erabateko lotura duten errealitate bat dira. Gaur egun, Eskoriatzan zaintza eta etxeko lanen ardura nagusia emakumeek dute, eta lanen planifikazioaz ari garenean arrakala nabarmen handitzen da elkarrizketatutako emakumeen esanetan. Arduren banaketan sakontzea beharrezkoa da, gizonen inplikazioa handitzeko herritarren kontzientziazio mailan eta eguneroko ohituretan eraginez.
- Nagusien zaintzan kanpo kontratazio pribatuek ere presentzia nabarmena dute.
- Udaletik etxeko zerbitzuan identifikatutako hutsuneak kontuan hartuta, irudikatutako ibilbidea aurrera eramatea garrantzitsua izango da langileen baldintzak hobetzera begira.
- Zaintza lanen inguruan hitz egiterakoan, irakurketa guztietan aitona-amonak zaintzaileen figura aipatzen da. Prozesu honetan, hezkuntzako eragileekin egindako elkarrizketan aipatu bazen ere, adinekoekin elkarrizketa propiorik ezin egin izanak informazio falta edukitzea eragin du. Beraz, gai honetan sakontzeko beharra agerikoa da. Aurrera begira bide berriak topatu daitezke.
- Jakin badakigu, gaur egun, zaintza lan asko kontratazio pribatuen bidez kudeatzen direla, eta bertan lanean egoten diren asko emakume migratuak izaten direla. Saiakera egin den arren, emakume migratuekin ezin izan da elkarrizketa propiorik egin eta informazio hori ezin izan da jaso. Aurrera begira, aurreko gaiarekin bezala, modu berriak topatu daitezke diagnostikoa osatzeko.
- Zaintza modu integral batean eta gaian inplikatuak dauden eragile eta herritarrekin batera lantzeko bideak irudikatu.

KULTURA

Kultur arloaren azterketak, alde batetik, herriko tradizio kulturala, beste alde batetik, herriko kultur eragileen osaera eta jarduna, eta azkenik, horrek guztiak berdintasunean duen inpaktuaren azterketa dakar. Atal hau ere, eduki kualitatiboaz elikatu da gehienbat.

Eskoriatzako kulturgintzari dagokionez, udalak zein herri eragile ezberdinek sortzen duten eskaintzaren bidez elikatzen da. Udalaren jardunari erreparatzen badiogu, honek urtero kultur ekitaldi ezberdinak eskaintzen ditu. Dena den, horietako asko herri mugimenduko eragileekin elkarlanean antolatzen dira.

Horiek antolatzeko udal baliabideei dagokienez, hainbat dira aurki ditzakegu espazioak: liburutegia, Kultur Etxea, plaza, etab.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN LABURPENA:

- Elkarrizketa guztietan aipatu da kultura eta aisialdiarekin lotutako ekintzetan argia dela parte hartzaileen arteko genero arrakala. Rol tradizionalen arabera banatu ohi da: plazaren erdigunean gizonak elkartzen dira gehien bat, eta eskulanekin edota zaintzarekin zerikusia daukaten ekintzetan emakumeak.
- Aipatutako beste adibide bat, ohiko rol tradizionalei jarraikiz, kirolean gizon asko eta dantzan gehienbat emakumeak egotea da, esaterako.
- Adinaren faktorea ere behin baino gehiagotan aipatu da. Kultur kontsumoan gazteen artean oreka mantentzeko joera sortzen ari den bitartean, 30 urtetik gorakoan artean gizonak nagusitzen dira.
- Elkartegintzako elkarrizketatuek adierazi dute orain arte ez dela genero berdintasun irizpiderik kontuan hartu ekimenak antolatzerakoan.

“Un hombre ha ido a aprender a coser y está encantado. Pero sigue estando marcado.”

“Rolek eragina dute aisialdi praktikan”


“Gazteen artean aldaketa eman da, erreferentziazko pertsonak beste batzuk dira”

“Kultur ekintzetan emakume gehiago egoten dira: Ibai garbiketa, natur

- ↳ Elkarriketatuen ustez, kultur elkartetik antolatzen dira urteko kultur ekintza arrakastatsuenak, eta beste horrenbeste herri mugimenduetatik.
- ↳ Bukatzeko, udaletik antolatzen den eskaintza bi ekimen motatan bereizten da: alde batetik, urtero dauden egun esanguratsuetan (jaiak, gabonak...) antolatzen diren ekintzak daude; eta bestetik, antzokian edo kultur etxean antolatzen direnak (udazken eta neguan batez ere).

ekintzetan familiak askotan..."

"Bizitza sozialean 30 urtetik gora genero arrakala izugarria da, herri honetan gizonek markatzen dute bizitza soziala"



Galdetegian herritarrei eskoriatzako aisialdi ohituren inguruan galdetu zitzairen, genero rol eta estereotipoek aisialdi ohituretan duten eraginaren inguruan, zehazki. Eragin horrek 5etik 3,51ko puntuazioa jaso zuen bataz beste, gizonen ustez emakumeen ustez baino handiagoa delarik. Hau da, eskoriatzarren ustez genero rol eta estereotipoek eragina dute aisialdia bizitzeko moduetan.

ONDORIOAK

- Kultur eremua eta kultur kontsumoa adinak eta genero identitateak markatzen dute.
- Rol tradizionalak ere pisu nabarmena dute Eskoriatzako ekintzetan gizonak eta emakumeek ekintzetan parte hartzeko orduan. Horiek gainditzeko urratsak ematea garrantzitsua da.
- Udaletik, zein herri mugimenduetatik antolatzen diren kultur jardueretan herritarren presentzia orekatua lortzeko pausuak ematea tresna baliagarria izan daiteke. Baita “oholtza gainera” eramaten diren artistak aukeratzeko irizpide konpartituak sortzea.
- Kultur eskaintza sortzen duten eragileetan, oro har, ez da genero ikuspegia integratzeko lanaketa bereziturik egin eta ez da bereziki kontuan izaten.

JAIK

Herriko jaietako egitarauak, tradizioak eta ohiturek genero-estereotipoetan zein eragin duten eta herriko jaiak berdintasunari dagokionez zein paper jokatzen duten aztertzea garrantzitsua da. Izan ere, jaiak une eta egitate gakoak dira herri batentzat. Arlo asko barnebiltzen dituzte (tradizioa, erritualak, hartu eman informalak, batasuna,...) eta horiek herri nortasuna eraiki eta indartzeko garrantzitsuak dira. Hori horrela, giza harremanak eta gizarte egiturak aztertzeko parada ezin hobe ematen digute, eta zentzu horretan, garrantzitsua da azterketa hori genero-ikuspegitik egitea, estereotipoak indartu edo eraldatzen diren ikus ahal izateko, besteak beste. Atal honetan azterketa horretara hurbilpen bat egingo da.

Ondorengo taulan laburbiltzen dira Eskoriatzan ospatzen diren jai edo egun bereziak:

DATA	JAIK	ANTOLATZAILEA
Otsailak 5 (Santa Ageda)	Kintada eguna	Herria eta Itzartu gazte asanblada
Otsaila-Martxoa	Inauteriak	Eskoriatzako udala
Ostegun gizona	Urdelardero	Eskoriatzako udala
Apirila	Gazte Eguna	Itzartu gazte asanblada
Maiatzeko lehenengo domeka	Atxorrotzeko eguna	Eskoriatzako udala

Maiatzean (Atxorrotx egunaren osteko zapatua)	Atxorrotx Kultur elkarte eguna	Atxorrotx kultur elkarte
Maiatza	Txomin Txapel Jaia	Huheziko ikasleak
Maiatza	Eskomor jaia	Eskomotor elkarte
Maiatza	Kirol Elkartearen eguna	Eskoriatza Kirol Elkarte
Ekaineko lehenengo zapatua	Eskoitzako Ferixie	Arizmendi Ikastola (Jose Arana gunea)
Ekainak 23	San Juan bezpera	Eskoriatzako udala eta Santa Ageda neska mutilak izando diren kintada
Ekainak 28-Uztailak 1	San Pedro jaiak (herriko jai nagusiak)	Eskoariatzako udala eta Itzartu gazte asanblada
Uztaila	Zedemontre topaketa	Eskoriatzako udala
Uztaila	Eskoriatzako rallysprinta	Eskomotor elkarte
Uztaila	Futsal txapelketa	Eskoriatzako udala
Iraileko lehenengo asteburua	San Pedro eta Intxaurtxuetako auzoetako jaiak	San Pedro eta Intxaurtxuetako bizilagunen elkarte
Iraila	Eskoxtrem	Eskoriatzako Kirol Elkarte
Iraila	Errekan gora jaialdia	Atxorotx kultur elkarte
Iraileko hirugarren asteburua	Elorreta auzoko jaiak	Elorreta auzoko bizilagunak
Urria	Ezkurtxo	Arizmendi Ikastola (Jose Arana gunea)
Urriak 30	Gaba Baltza	Eskoriatzako udala
Azaroa	Ardo dastaketa eguna	Atxorrotx kultur elkarte
Azaroa	Telmo jaia	Eskoriatzako kuadrila bat
Azaroak 22	Santa Zezilia	Beheko Errota Musika Eskola
Abendua	Euskeraren eguna	Eskoriatzako udala
Abendua	Ongi etorri gabonak jaia	San Pedro eta Intxaurtxuetako bizilagunen elkarte
Abenduak 24	Olentzero eta Mari Domingi	Eskoriatzako udala

Ikusi daitekeenez, herrian hainbat gai eta ekimenen harira egiten dira festa eta ospakizunak: kirolaren inguruan antolatutakoak, belaunaldi ezberdinetako pertsonen zuzenduriko ekimenak, egun seinalatuen ospakizun festak... eta horietan askotarikoak dira antolatzen diren ekimenak: emanaldiak, kontzertuak, lehiaketak, azokak, ekitaldiak eta abar luze bat. Antolakuntzan ere askotariko herri eragileak aurki ditzakegu, jaien antolakuntzan herritar asko eta anitzak inplikatzeko direlarik. Gainera, aipatu ekintza gehienetan antolakuntzaren ardura nagusia zerrendatutako eragileek badute ere, normalean beste herri eragileren baten zein herritarren eta udalaren laguntzarekin egin ohi direla.

Dena den, antolatzen diren ekintzetan genero-ikuspegia txertatzen den ezagutzea da hemen bilatzen duguna, batez ere. Horretarako, hurrengo ataleko ekarpenak ezinbestekoak izango dira.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO

IRITZIEN LABURPENA:

- ↪ Orokorrean ez da genero ikuspegia integratzeko saiakera propiorik egin izan.
- ↪ Herri mugimenduetatik antolatutako egunei dagokienez, elkartegintzako elkarrizketatuek lan banaketan jarri dute fokua. Inertzia edo antolatu gabe egiten da lan banaketa eta horrela rol tradizionalen arabera egitea ekarri izan du. Adibidez, gizonek pisua eramatea eta emakumeek bazkaria zerbitzatzea.
- ↪ Antolakuntzan gero eta emakume gazte gehiago egoteak ahalbidetu du emakume gehiago inplikatzeko eta oholtza gainera bestelako ikuskizunak igotzea.
- ↪ 2023an, udalaren, jai batzordearen eta talde feministen artean jaiari begirako protokoloa landu zen. Protokolo horrek herri mailako dimentsioa lortu nahi zuen eta, horretarako, tabernei ere

“Lan banaketa ez da planifikatzen eta askotan eszenatokia montatzen eta desmontatzen mutilak egoten dira. Niri gustatuko litzaidake orekatuta egotea, zaila da baina... gauza da hitz egin behar dela, baina ez da hitz egiten”

“Jaietan ez da ekimen edo agerraldi berezirik egiten”

gonbidapena luzatu zitzaien protokolo bateratua edukitzeko (bakarra gerturatzea lortu zen).

- Elkarrizketatuen hitzetan, protokoloa arrapaladan egin zen eta herritarrei begirako zabalkundea egin gabe geratu zen.
- Aurten bi erronka markatu dituzte udaletik: herriko jaietan, talde feministekin batera, protokoloaz gain, 24 orduko salaketa telefonoa martxan jartzea (telefonoa edukiko dutenek formakuntza jasoko dute); eta urtean zehar dauden bestelako jai egunetan ere protokoloa erabilgarri egotea.

“Herri mailan ez zen adierazi protokoloa egin zela, ez zen zabalkundea egin, motz gelditu zen”

ONDORIOAK

- Jaiei, eta bereziki, protokoloari begira, udalaren eta herri mugimenduen arteko elkarlana egotea lanketa eta erantzun bateratuak emateko bermea da. Bide beretik aurrera pausuak ematea interesgarria izango litzateke, identifikatutako erronkak eta erronka berriak egikaritzeko.
- Jaiei begira tabernekin egin nahi den lanketak bi helburu bete ditzake: alde batetik, jaietan zehar, protokolo bateratua edukitzea eta horrela herri mailako dimentsio hori lortzea, kontzientziazioa eta tresnak ematen diren bitartean. Eta bestetik, kontuan hartuta tabernetan jai giroa bestelako asteburuetara ere luzatzen dela, prest egon daitezen egoera horiei erantzuna emateko.
- Horrez gain, herriko jaietarako egindako lana bestelako jai egunetara zabaltzea ezinbestekoa da urte osoan zehar presentzia feminista bermatzeko, prebentzioa lantzeko eta eman daitezkeen erasoei erantzun ahal izateko.
- Dena den, oro har, jaietako egitarauen generoaren araberako berariazko azterketarik ez da egin. Hala ere, herriko tradizio eta ohiturek genero-estereotipoetan zein eragin duten eta herriko jaiak berdintasunari dagokionez zein paper jokatzen duten aztertzeko lanketa bat egitea interesgarria izango litzateke. Bide horretan, hobetzekoei aurre egiteko estrategiak diseinatu eta ondo egiten direnak babesteko neurriak adostea interesgarria litzateke.
- Protokoloaz gain, jaiei begira ez da bestelako lanketa espezifikorik egin eta ez dago irizpiderik adostuta gaiaren inguruan.

KIROLA

Kirol esparruan herrian zein dinamika eta errealitate dagoen aztertu da atal honetan, eta horrek genero-berdintasunean zein eragin duen (emakumeen presentzia eta ikusgarritasunari dagokionez, emakumeen kirolaren aitortzari dagokionez, emakumeen erabakitze ahalmenari dagokionez, etab.).

Eskoriatzan kirolak presentzia nabarmena eta egonkortua duela baieztatu dezakegu. Kirol egituratua hainbat zutabetan oinarritzen da: alde batetik, talde eta elkarteek burutzen duten federatuentzako eskaintza dago, zeina taldeetatik kudeatzen den eta normalean urte osorako eskaintzek osatzen duten. Beste alde batetik, herriko kiroldegi publikoan eskaintzen diren ikastaroekin egiten dugu topo (aipatu, kiroldegiaren kudeaketa enpresa bati esleitura dagoela). Bukatzeko, urtean zehar udalak eta elkarte zein taldeek burutzen dituen ekimen ezberdinak daude (ikuskizunak, lasterketak...).

Horrez gain, aipatu beharra dago herriko haurrek bailarako eskola kiroleko programan parte hartzeko aukera ere badutela.

Aipatutako elkartearen artean, herrian ikusgarrienak diren batzuetan gizonezkoen presentzia gailentzen da.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO

IRITZIEN LABURPENA:

- ↪ Ezin izan da elkarrizketa propiorik egin kirol munduan dauden eragile eta kideekin, ondorioz, atal honetan jasotakoak gainerako elkarrizketetan eta galdetegian bildutako iritziak dira.
- ↪ Oro har, herrian kirol esparrua esparru maskulinizatua da elkarrizketatuen iritziz; herriko talde gehienetan gizonezkoen presentzia emakumezkoena baino askoz handiagoa delarik.
- ↪ Gainera, giroari erreferentzia egitean, askok aipatu dute espazio arrotza dela eta batzuentzako ez dela batere erosoa.

“Harreman gutxi dago udalaren eta kirol munduaren artean”

“Iraingarria da kirolean dagoen arrakala. Futbolean mutilak eta saskibaloian neskak”

- Berezi bi kirolen artean dagoen arrakala aipatu da: futbolean gehienak gizonak dira, eta saskibaloian emakumeak.
- Gaiaren inguruan, herritarren artean zein udalean kezka bat badagoela antzeman dugu.
- Elkarrizketatuen ustez, kirol taldeetan gaiarekiko kezka maila ezberdinak aurkitu ditzakegu.


ONDORIOAK

- Kirol eremua maskulinizatuta dago Eskoriatzan, batez ere, espazio eta eremu publikoan burutzen den kirolari dagokionean. Parte hartzaileen artean ere desoreka nabarmena dago.
- Udalak horren kontzientzia hartzea eta emakumezkoen kirola sustatzeko ekimen ezberdinak antolatzea eta helburu horretara bideratutako plangintza egituratu bat izatea interesgarria izango litzateke.
- Garrantzitsua litzateke kirol eremua ere emakumeentzat espazio hurbila izateko, taldeen kontzientziazio maila lantzea.
- Emakume kirolarien erreferentzialtasuna berdintasunaren bidean aurrera egiteko gakoa izan daiteke. Herrian bertan kirola egiten duten emakumeak ere ikustaraztea garrantzitsua litzateke.
- Zailtasunak egon dira eremu honetako informazioa eskuratzeko, hutsune hori betetzea beharrezkoa da eremu horretan eragiteko urratsak adosteko.
- Herritarren eta udalaren aldetik kezka pizten duen gaietako bat da genero berdintasunaren ikuspegitik; beraz, komeniko litzateke informazio bilketan sakontzea eta hurrengo urratsak irudikatzen hastea.

EUSKARA


Hizkuntza ohiturak, erabilera eta transmisioak generoarekin duen lotura aztertuko da. Euskara eta herriko euskalgintzaren genero-ikuspegiaren araberrako analisi bat eginez.

Eskoriatzako herritarren euskararen ezagutza altua da (%62,6ak 2016an), herrialdekoa baino pixkat handiagoa, baina, eskualdekoa baino pixka bat txikiagoa.



(Iturria: Eustat)

Bestalde, hizkuntzaren erabilerari dagokionez sexuaren arabera datuak ere aurkitu ditzakegu. Etxeko hizkuntzari erreparatzen badiogu, ikusi dezakegu 2021an eskoriatzarren %26,2ren etxeko hizkuntza euskara zela. Horien artean, etxean euskaraz egiten zuten emakumeen kopurua pixka bat handiagoa zen. Oro har, joera hori beste datuek ere baieztatzen dute, izan ere gaztelania erabiltzen zuten emakumeen kopurua txikiagoa zen. Beraz, erabilerari dagokionez, Eskoriatzan ere azken urteetan Euskal Herrian identifikatzen ari den joera orokorra errepikatzen da.



(Iturria: Eustat)

Bestalde, 2021. urtean kale neurketa berriak burutu ziren, sexuaren aldagaia ere kontuan izanez. Kale erabileraren batz bestekoa %29koa izan zen, emakumeena %33koa eta gizonena %25,1ekoa (Iturria: Soziolinguistika Klusterra). Etxeko hizkuntzarekin gertatzen den bezala, emakumeen elkarrizketetan gizonetzkoenetan baino presenteago dago euskara.

Herrian euskararen sustapenerako, egun, AROA plan estrategikoa osatzen ari da. Prozesu parte hartzaile baten bidez burutzen ari da eta 2024an onartuko da.

Horrez gain, herrian, ekintza zehatzetarako taldeak ere sortu izan dira (euskaraldia, korrika...), baina ez dago urtean zehar modu egonkorrean mantentzen den eta lanketak burutzen dituen euskalgintzako talderik.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO

IRITZIEN LABURPENA:

- ↪ Udaletik euskararekin lotutako ekimenak aurrera eramateko batzordeen sorrera bultzatzen da: Berbalagun, Euskaraldia, Korrika... batzorde horietan, oro har, beti berdinak mugitzen dira.
- ↪ Herrian euskaldunak eta erdaldunak polarizatuta daudela aipatu da, ez direla espazioak konpartitzen.
- ↪ Laster euskara eta kulturartekotasuna landuko duen proiektua martxan jarriko da Huhezirekin batera. Hasiera batean eskolara mugatuko bazen ere, azkenean herrira zabalduko da.

*“Beti berdinak
mugitzen dira”*


ONDORIOAK

- ↪ Eskoriatzan euskararen ezagutza handia da (2016an herritarren %62,6 ziren euskaldunak).
- ↪ Kale erabilera, ordea, ezagutzatik aldentzen da eta %29ra jaisten da. Emakumeek gehiago erabiltzen dute euskara gizonen baino.

ZAHARTZAROA

Herriko nagusien errealitatera, eta batez ere, herriko emakume nagusien errealitatera hurbilpen bat egingo da datozen lerroetan. Dituzten beharretan eta horiek asetzeko baliabide eta estrategietan arreta jarriz.



Arestian aipatu bezala, Eskoriatzako biztanleria, herrialdeetako joerarekin bat, zahartzen ari da. Datuek azalerarazten duten bezala, 65 urtetik gorako biztanleen proportzioak ia etengabe egin du gora azken hamabost urteetan, 2004tik 2020ra ia 4 puntu igo delarik.



(Iturria: Behagi)

Gainera, herriko nagusien proportzioak gora egitearekin batera herriko gazteenena (<15) jaisten ari da azken urteetan, eta ondorioz, herriko zahartze indizea ere etengabe hazten ari da azken urteetan. Gainera, bizi-itxaropenak ere gora egin ahala, gainzahartzaroan dauden pertsona kopurua ere handitzen ari da.

Horrez gain, garrantzitsua da herriko nagusien adinaren eta sexuaren araberako proportzioei erreparatzea, izan ere, zahartzaroan, eta batez ere, gainzahartzaroan emakumezkoen proportzioa gizonezkoena baino handiagoa da. Esaterako, 2023. urtean 90 urtetik gorako emakume kopurua gizonezkoen kopuruaren bikoitza zen.



(Iturria: Eustat)

Hori horrela, aztertutako errealitateak erantzun beharreko hainbat behar azaleratzen ditu: alde batetik, pertsona nagusien eta batez ere emakume nagusien balizko bakardadean arreta jarri beharra dakar. Horrez gain, zaintzarekin lotuta dauden oinarrizko beharrek ere egiten dugu topo. Eta, gainera, behar horiek aldebiko norabidea dute, izan ere, funtsezkoa da zaintzaileengan ere arreta jartzea. Bide horretan, gogoratu, aurrez ikusi dugun bezala, egungo gizartean, zaintza lanak emakumezkoen gain daudela gehienbat.

Beraz, ondorioztatu dezakegu, Eskoriatzan ere, biztanleriaren zahartzeak erronka garrantzitsuak irudikatzen dituela, eta erronka horiek genero-ikuspegiarekin lantzea ezinbestekoa izango da.

Herrian nagusien beharrei erantzuteko dauden baliabideei dagokienez, Jubilatu Elkartea, Eguneko zentroa, Lagunkoia eta udala aipatu behar ditugu. Jubilatu elkarteak zein udalak ekintza eta ikastaro ezberdinak burutzen dituzte.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO

IRITZIEN LABURPENA:

- Aurreikusita bazegoen ere, ezin izan zen adineko emakumeekin berariazko elkarrizketarik egin. Hala ere, bestelako elkarrizketetan eta kontraste saio batean hainbat emakume nagusiren pertzepzioak jaso ahal izan dira.
- Jubilatuek (Olazar) antolatzen dituen irteeretan gehienbat emakumeek parte hartzen dute.
- Jubilatuen taberna itxi zenean Jubilatuek Elkartetik berriro irekitzeko eskaera antolatu zuten. Herriko feministekin harremanetan jarri ziren eta udaletxeko plenora joan ziren. Tabernara joaten ziren gehienak emakumeak ziren eta asko alargunak, sozializatzeko espazioa galtzen ari ziren.
- Jubilatuen Elkarteko zuzendaritzan gaur egun bi emakume daude.

“Entonces era la iglesia también, y aquello era demasiado. Ha pegado un cambio del agua al vino”

“A mi no me parece todo bien, pero hay que reconocer que era otro tiempo, el cambio ha ido bien”

“Lehen dena pekatua zen”

“A mí mi marido me ayuda mucho”

“Gizonek ezin dute aguantatu eurak baino gehiago izatea andriak”

ONDORIOAK

- Eskoriatza zahartzen ari den herri bat da, azken urteetan 65 urtetik gorako pertsonen proportzioak etengabe gora egin duelarik. Horrek herri gisa erantzun beharreko erronkak marrazten ditu eta bide horretan genero-ikuspegia presente izatea ezinbestekoa izango da.
- Bi jubilatuen elkarte daudela kontuan hartuz, bien iritziak eta beharrak jasotzea garrantzitsua da, batez ere batean emakume gehiago eta bestean gizon gehiago


daudelako. Aldi berean, bien arteko harremana eta saretzea bultzatzea ere klabea izan daiteke eskakizunak ez errepikatzeko.

- Zahartzaroaren gaian sakontzeko adineko emakumeekin elkarriketa aurreikusi bazen ere, ezin izan zen egin datarekin egondako arazoengatik. Ondorioz, informazio falta somatzen da atala osatzeko. Aurrera begira beste bide batzuk bilatzea komenigarria izango litzateke.

GAZTERIA ETA HEZKUNTZA (FORMALA ETA EZ FORMALA)

Haur eta gazteekin hartuemanean dauden eragileak eta horiek genero-ikuspegiarekiko egiten duten lana eta egindako ibilbidea dira azterketaren oinarri. Horrez gain, berdintasunari dagokionez, haur eta gazteen beharrak eta erronkak ere aztertzen dira.

Azken urteetan herriko haur eta gazteen proportzioa:



(Iturria: Behagi)

Azken urteotan, herrian haur eta nerabeek hartzen duten proportzioak behera egin badu ere, 2023. urtean gora egiten duela ikusi daiteke, hurrengo urteetako joera aztertzen jarraitzea interesgarria izango litzateke. Haur eta nerabeen kopuru osoak gora beherak eduki ditu azken bi hamarkadan, beraz, ez da datu esanguratsu bat.

Bestalde, herriko hezkuntza eragileei dagokienez, ondorengoak aipatu behar ditugu:

- Eskoriatzako Haurreskola-Kulunka: 0-2 urte arteko haurrekin lan egiten dute.
- Luis Ezeiza eskola: LH6ra arteko eskaintza du.
- Arizmendi ikastola: 0-18 urte bitarteko eskaintza dago Aretxabaleta-Eskoriatzan.

- Udal euskaltegia: Maila guztietako ikastaroak eskaintzen dira.
- Gaztelekua: 12-17 urte bitarteko nerabeei zuzenduta dagoen udal zerbitzua da. Txatxili elkarteak bideratzen du.
- Ludoteka: 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen zerbitzu hezitzailea da. Txirikila Aisialdi elkarteak bideratzen du eta udalekuak ere antolatzen dituzte.
- Huhezi: Mondragon Unibertsitateko Humanitateen eta Hezkuntza Zientzien fakultatea Eskoriatzan kokatzen da.
- Guraso Elkarteak: Herrian bi guraso elkarte daude:
 - Luis Ezeiza Guraso Elkarte (Koldotxo): eskolaren inguruko ekimenak antolatzeko biltzen dira.
 - TipiTapa Guraso Elkarte: 0-6 urte bitarteko haurren garapenerako elkarte da.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, azken urteetan hezkuntza eragileek lanketa ezberdinak burutu dituzte eta burutzen dituzte, hala nola, eskolako patioaren erabilerari buruzko lanketa, urteko egun zehatzen (martxoak 8, azaroak 25) inguruko lanketa...

Hala ere, ez dago hezkuntza eragileen arteko koordinaziorako gunerik, batzuek harremana izaten dute ekintza zehatzen ingurukoak adosteko, baina herrian ez dago eragile guztiak batuko dituen eta haien arteko harremana, elkarlana eta koordinazioa sustatuko duen egitura finkorik. Bestalde, eragile gehienek udaleko prebentzio teknikariarekin harreman zuzena dute.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN LABURPENA:

Hezkuntza eragileetako ordezkariekin zein udaleko kideekin izandako elkarrizketetan jasotako informazioa da ondorengoa:

- Elkarrizketetan zein galdetegiko ekarpenetan behin baino gehiagotan aipatu da berdintasunean heztearen eta hezkuntzan eragitearen garrantzia. Hezkuntza aldaketarako gako gisa identifikatzen dute herritar askok.
- Ikastetxeetan hezkidetzat landuz egiten da genero berdintasunaren lanketa. Egun puntaletan lanketa esplizituak egiten badituzte ere, orokorrean, balioen lanketan eta zeharkakotasunean zentratzen dira. Adinaren arabera edukiak eta metodologiak egokitzen dituzte.
- Ikastetxeetan gurasoekin talka ezberdinak sortu izan dira. Eta haurrengan gizartean topatzen diren erresistentziak ere identifikatu izan dira. Irakasleek ikasleen aurrean

erreferentzialtasuna galdu dutela diote eta horrek eskola orduetan zenbait aurrera pausu ematea baina kanpoan ez islatzea dakarrela esaten dute.

- Arazo edo arrazoi zehatz bat dagoenean berariazko lanketak ere egiten direla baieztatu da.
- Euskaltegian kurrikulumaren aldaketa eman da, eta oraingoan, genero ikuspegiari arreta berezia jarri zaio. Material guztia moldatu da hizkera eta irudi ez sexistak bermatzeko.
- Gaztelekuan genero ikuspegitik eta feminismotik lan egiten saiatzen dira. Espazio segurua sortzen saiatzen dira eta hutsuneak edo beharrak identifikatzen direnean horiek lantzen dituzte. Dena den, espazio fisikoak berak lanketak egiteko aukerak baldintzatzen ditu, veste espazio egokiago baten beharra jaso da.
- Gazteen errealtateari dagokionez, orokorrean, genero-rol tradizionalak erreproduzitzen dituztela baieztatu da. Eta gaur egun horiekin apurtzea normalizatuago badago ere, oraindik estigmatizazioak bizirik dirauela uste dute gehienek.
- Gazteen diskurtsoen artean, neskena eta mutilena gero eta polarizatuago sumatzen dela aipatu dute elkarrizketatuek. Neskei feminismoarekin eta ahalduntzearekin gero eta hurbilpen handiagoa ikusten zaien bitartean, mutilei gero eta erresistentzia gehiago eta pribilegioen goraiapatea ikusten zaiela esan dute.
- Bestalde, herriko haur eta gazteen hezkuntzan guraso eta hezkuntza eragileetatik kanpo kokatzen diren faktoreek duten eraginarekiko kezka ere aipatu da (sare sozialak, internet, pornografia...). Horien kontsumo kritiko bat egiten erakustea aipatu da haur eta gazteak berdintasunean hezteko bide gisa.
- Gurasoei dagokienez, haurren zaintzaren ardura lehen baino orekatuago dagoela uste da. Dena den, amen presentzia oraindik handiagoa dela baieztatu da.
- Herrian ez dago hezkuntza eragileen arteko hartuemanerako eta koordinaziorako eremurik, talde elkarrizketan parte hartu duten eragile guztiek beharrezkotzat eta baliagarritzat jo dute horrelako eremu bat egituratzea.
- Bukatzeko, etorkizunerako erronka gisa hainbat aipatu dira: arlo ezberdinetan balio euskaldun eta feministadun erreferenteen beharra dagoela; maskulinitateen lanketa beharrezkoa dela; hezkuntza mahaiaren beharra; adin txikikoen protokoloen harira saretzea...

“Ikasleen erreferenteak ya ez dira irakasleak”

“Lotsagarria da eskolan detektatzen denari ematen zaion aterabidea”

“Gaztelekuan espazioa hartzeko modua oso ezberdina da. Leku txikia daukate eta ez da eroso jende asko elkartzeko”

“Kontrako jarrerak handitu dira azken urteetan. Lehen apalago edo ixilik zeudenak orain indartu dira. Sare sozialek honekin lotura dute”

“Udalean hezkuntza mahaia artikulatu beharko litzateke horrelako espazioak gehiagotan edukitzeko”

ONDORIOAK

- Haur eta gazteengan eragiten jarraitzea eta horretarako hezkidetzan oinarritutako hezkuntza formalean eta ez formalean eragiten jarraitzea ezinbestekotzat jo da.
- Horren baitan, bereziki mutilekin egin beharreko lanketa aipatu beharra dago. Erresistentzietatik eta estereotipo tradizionaletatik aldentzeko aurrera pausuak ematen joateko.
- Batzuetan haur eta gazteekin harremanetan, hezitzaile zein gurasoek duten formazio eta kontzientzia mailaren araberakoak izaten dira berdintasunari lotutako lanketak. Hezkuntza eragileetako kideek berdintasunean etengabeko formazioa izateko bideak esploratzea interesgarria izango litzateke.
- Haurrengan eragiteko gako gisa erreferenteak lantzea dela identifikatu da, betiere erreferente horiek balio feministak eta euskaldunak baldin badituzte. Hori nola landu diseinatzea eta herritarrak horretarako baliabide eta tresnaz hornitzea izango litzateke zentzu horretan hurrengo urratsa.
- Egun ez dago hezkuntza formal eta ez formalen arteko koordinazio espazio egonkorrik, beharren arabera eta batzuen artean bakarrik egiten da. Hezkuntza mahaia sortzea eta bertan hemen aipatutakoak, besteak beste, lantzea proposatu da.
- Herriko hezkuntza eragileek beren jarduna burutu eta lanketak egin ahal izateko espazio aproposak dituztela bermatzea garrantzitsua litzateke.
- Esan beharra dago, haur eta gazteen ahotsak propio ez direla jaso, eta interesgarria izango litzatekeela aurrera begira haien iritziak eta beharrak jasotzeko tresna aproposak bilatzea.


MIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA

Eskoriatzara migratutako pertsonen generoaren arabera azterketa egiten da atal honetan. Baita migratutako emakumeen errealitatera hurbilpen bat, egon daitezkeen behar, estrategia, erronka eta indarguneetan arreta jarritz.

Dokumentu honen hasieran Eskoriatzako datu demografikoak aztertzean azaldutakoari jarraiki, Espainiar Estatutik kanpo jaiotako pertsonen proportzioak nabarmen egin du gora azken bi hamarkadetan. Gaur egun, eskoriatzarren %10,2ak jaioterria Espainiar Estatutik kanpo du eta horien artean 36 herrialde ezberdinetako nazionalitateekin egiten dugu topo. Hori horrela, Eskoriatzak kultur eta ohitura aberastasuna duen herria da.

Hala ere, nazionalitate guztietako pertsona kopurua ez da berdina, multzo handienak lau jatorritako pertsonak osatzen dutelarik: Kolonbiako nazionalitatea daukaten herritarrek bestelako nazionalitatea duten herritarren %16a osatzen dute, Portugaldarrek %14,7a, Pakistandarrek %13,8a eta Marokoarrek %12,4a. Ondoren, %3 eta %7 artean kokatzen dira Honduras, Argelia, Rumania eta Venezuelako nazionalitatea daukatenak. Azkenik, proportzio txikiagoan, Eskoriatzako populazioa ondorengo nazionalitateetako pertsonak ere osatzen dute: Ukraina, Nikaragua, Bulgaria, Polonia, Dominikar Errepublika, Txina, Mexiko, Peru, Alemania, Frantzia, Argentina, Mauritania, Paraguay, Somalia, Bolivia, Txile, Cuba, Mali, Niger, Senegal, Tunez, Irlanda, Italia, Errusia, Suedia eta Herbehereak.

Lau talde nagusietako herritarrak generoaren arabera aztertzen baditugu, hainbat datu esanguratsurekin egingo dugu topo:





(Iturria: Udal errolda)

Grafikoan antzeman daitekeenez, herrialdearen arabera, gizonen eta emakumeen kopuruak aldatzen dira: Maroko, Pakistan eta Portugaleko datuak nahiko antzekoak dira, kopuruak

orekatzeko joera duten arren, gizonen kopurua altuagoa da. Kolonbiako kasuan, aldiz, emakumeen kopurua nabarmen altuagoa da (%61,7).

Hori horrela, garrantzitsua da azpimarratzea lau herrialde horietako datuek joera orokorragoen erakusleho direla. Izan ere, jatorrizko herrialdeak herrialde talde handiagoen arabera bereizten baldin baditugu, argi ikusiko dugu latinoamerikatik etorritako pertsonen artean emakumezkoen proportzioa nabarmen handiagoa dela, Europako beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonen artean proportzioak orekatuago daudela; eta azkenik, Afrikatik etorritako pertsonen gehiengoa gizonezkoak direla (iturria: udal errolda). Jarraian, azken 20 urteetako inmigrazioaren eta emigrazioaren bilakaeraren datua jasotzen da generoaren arabera:



Inmigrazio eta emigrazio fluxuei erreparatzen badiegu, ikusi dezakegu bai batean zein bestean, orokorrean urteetan zehar gizonezkoen kopurua altuagoa izan dela. Inmigrazio tasarik altuenak 2005-2009 urte bitartean topatu daitezke, eta emigrazio tasarik altuenak 2012-2015 artean. Bi kasuetan ikusten da 2020tik gaur arte igoera fasean murgildurik daudela. Bestalde, inmigratio kopuru totalak emigrazioarenak baino altuagoak dira azken urteotan.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO IRITZIEN LABURPENA:

- Emakume migratuekin aurreikusitako talde elkarrizketa egiteko zailtasunak egon ziren eta bertatik jaso zitekeen informaziorik ez da jaso. Hala ere, kontraste saio bat baliatu da bi migratutako emakumeren pertzepzioak ere jasotzeko. Dena den, komeni da aurrerago kolektibo honen errealitatea jasotzeko bidea egitea.
- Herri mailan eta udaletik bideratuta Auzoko elkarte dago. Auzokotik oinarritzko harrera egiten zaie heldu berriei eta ekimen ezberdinak antolatzen dira urtean zehar. Azken aldian jende gutxi parte hartu du.
- Harrera plan integrala egiteko planteamendua sortzen ari da eskualde mailan, lehenengo beharrak identifikatzeko eta ondoren horiei erantzuna eman ahal izateko.
- Eskoriatzan ere jarrera eta egoera arrazistak identifikatu dira. Migratu izateagatik eremu batzuetan (medikua kasu) tratu ezberdina jaso izana adierazi da elkarrizketetan.
- Migratuen eta ez migratuen artean zubiak eraikitze eta elkarren arteko elkarrezagutza eta harremana sustatzeko espazioak oso ondo baloratu dira eta horrelakoak sortzeko beharra jaso da hainbat elkarrizketatan.

“Yo lo que veo es que cada vez hay más migración, pero no se ve reflejado en las asociaciones, espacios del pueblo...”

“No soy de aquí, y quiero juntarme con gente de aquí. Quiero participar.”

ONDORIOAK

- Eskoriatzan herrialde askotan jaiotako herritarrak daude. Dena den, emakumeei dagokionez, latinoamerikatik migratutakoak gailentzen dira.
- Emakume migratuek, arraza, etnia, nazionalitatea, edota beste arrazoi batzuegatiko zapalkuntzak ere jasaten dituzte (eta horrela onartzen dute galdetegia erantzun duten eskoriatzarren gehiengoak, berdintasuneko ataleko grafikoen artean jasota). Egoera Zapalkuntza anizkoitzek nola elkareragiten duten aztertu eta ikuspegi integral batetik eragitea garrantzitsua izango litzateke.
- Emakume migratuen artean ere, beraien artean zein beste herritarrekin saretzeko beharra antzeman da. Horretarako bideak egituratzea interesgarria litzateke.
- Auzoko zerbitzua martxan egonda, interesgarria izango litzateke haiekin batera egoeraren analisi sakonago bat egitea eta beharren arabera zerbitzua osatzea.
- Kontuan hartuta ezin izan dela emakume migratuekin elkarizketa egin, komeni da informazio hori lortzeko modu berriak bilatzea.

ESPAZIOAREN ERABILERA, URBANISMOA ETA MUGIKORTASUNA

Herria, bere egitura eta kaleen azterketa egiten da emakumeen bizipenak eta egunerokoa oinarrian jarritz. Azterketa horrek, besteak beste, egon daitezkeen gunen ilunak, emakumeen kaleetako presentzia sinbolikoa edota irisgarritasun zaileko espazioen inguruan arreta jartzea ahalbidetzen digu.

2021 urtean udalak herriko irisgarritasun plana eguneratu zuen. Eguneraketa horretan ez zen genero-ikuspegia txertatzeko lanik egin. Dena den, oztopoak kentzea eta herritar guztientzat herri irisgarriago bat sortzea du helburu planak.

Bestalde, garraio publikoei dagokionez, autobusa da Eskoriatzan dagoen zerbitzu bakarra eta zenbait kexa jaso dira horren inguruan. Badela geltoki guztietan ez duelako geldialdirik egiten edota oso beteta datorrelako beti. Horrek garraio publiko horren erabilera baldintzatu dezake.

Azkenik, kaleko segurtasunari dagokionez, herrian ez da inoiz gunen ilunen maparik sortu edota horien inguruko lanik egin. Hala ere, Intxaurtueta zubia gunen ilun gisa identifikatuta dago gauez argirik ez duelako, baina, argiztatzeko plana eginda dago. Horrez gain, museoan agenda 21 egitasmoaren baitan DBHko ikasleekin egindako lan baten ondorioak plenora eraman ziren eta bertan zenbait eskaera egin zituzten.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO

IRITZIEN LABURPENA:

- ↳ Espazio publikoaren erabilerari dagokionez, elkarrizketetan behin baino gehiagotan aipatu da espazioa gizonak gehiago erabiltzen dutela; gehienbat kirolaren esparruan. Bide horretan, aipatu da asko naturalizatu dela gizonak “plazan” egotea eta emakumeei gehiago kostatzen zaiela toki publiko hori hartzea.
- ↳ Herrian espazio berde falta dagoela aipatu da. Emakumeek kalea eta berdeguneak sozializatzeko eremu gisa gehiago baliatzen dituztela, eta bide horretan, herrian, itzalpean egoteko espazio berdeen eskaintza urria dagoela jaso da.

“Plazan eta erdigunean gizonak egoten dira batez ere”

ONDORIOAK

- ↳ Espazioaren erabilerari dagokionez, gizonak erraztasun handiagoarekin bereganatzen dute espazioa, gehienbat kirol eremuari lotuta.
- ↳ Horrez gain, emakumeen presentzia sinbolikoan sakontzeko beharra antzeman da.
- ↳ Gune ilunen inguruan ez da aipamenik jaso, baina oso presente egoten den gaia denez, herrian egon daitezkeen gune ilunen azterketa egitea komeni da.
- ↳ Hurrengo plangintzetan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko beharrezko ezagutza eskaintzea interesgarria izango litzateke.

GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA

Eskoriatzako udalak Gizarte Zerbitzuen bidez herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu. Hori horrela, Gizarte zerbitzuen bitartez herritarrei zuzeneko arreta eskaintzeaz gain, hainbat alorretara bideratutako prebentzio eta sentsibilizazio kanpainak ere bideratzen dira. Horretarako, bi gizarte langile eta prebentzioko teknikaria daude udaletik lanean.

GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO

IRITZIEN LABURPENA:

- ↪ Gizarte zerbitzuen bitartez burutzen den esku hartzea genero-ikuspegia txertatzeko ezagutza eta baliabide falta dagoela aipatu da.

ONDORIOAK

- ↪ Gizarte zerbitzuen bidez lan garrantzitsu bat egiten da herritarren ongizatea sustatze bidean.
- ↪ Dena den, ez da berariaz lana genero-ikuspegiarekin burutzen. Interesgarria litzateke, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko baliabidez hornitzea lan hori burutzen duten pertsonak.

GENERO-BERDINTASUNA

Atal honetan Eskoriatzan genero-berdintasunaren alde egin eta indarkeria matxistaren aurka egin den eta egiten den sentsibilizazio lana, erantzun soziala eta bestelako esku hartzeak aztertzen dira. Azterketa horrek herrian dauden baliabide eta aukerak identifikatzen lagunduko digu eta baita etorkizuneko erronkak definitzen ere.

Herrian genero-berdintasunaren lanketa

Herrian genero berdintasuna sustatzera bideratuta egiten den lanketa antolatuari dagokionez, bi eragile aipatu beharrean gaude: Eskoriatzan Feminismoa Bizirik (eskofemi) eta Eskoriatzako Neska Gazte Taldea.

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik

Gaur egun herrian aktibo dagoen talde feminista 2018 urtean sortu zen. Urte horretan Euskal Herri mailan, lehenengo aldiz martxoaren 8an greba feminista burutu zen eta herrian zeozer antolatzeko helburuarekin elkartzen hasi ziren. Geroztik, elkartzen jarraitu dute.

Bere sorreratik talde feministak eraikitako bidean ekintza ezberdinak burutu ditu, Eskoriatzan ikuspegi feminista zabaltzeko helburuarekin: jai espazioak espazio seguru izatera bideratutako lanketak, Greba Feministak, egun seinalatuetara begirako ekintzak (m8, a25), erasoen aurkako salaketak, etab.

Taldea ez mistoa da eta 6 kidek osatzen dute gaur egun. Dena den, kideen parte hartzea eta bileren maiztasuna momentuaren eta disponibilitatearen arabera izan ohi da eta kideen arteko komunikazio kanal ohikoa whatsapp eta aurrez aurreko bilerak izan ohi dira. Tokiari dagokionez, ez dute espazio fisiko zehatzik eta lokal publikoetan, tabernetan, etab. egiten dituzte. Azkenik, baliabide ekonomikoei dagokienez, talde autogestionatua da. Beraien ekimenen berri emateko askotariko bideak erabiltzen badituzte ere (sare soziala, pankartak, kartelak...) aipatzekoa da herriko emakume ezberdinek osatutako whatsapp talde ireki bat ere badutela, zeinaren bidez taldearen inguruko sare feminista egituratzen den.

Eskoriatzako neska gazteak

Eskoriatzako Neska Gazteen taldea 2019aren bueltan sortzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu talde bezala egonkortzea. Hala ere, 6 kideren artean harremana mantentzen dute eta haien artean koordinatzen dira.

Guerreras Elkartea (indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeen elkartea)

Eskualde mailan antolatzen den elkartea bada ere, Eskoriatzako kide batzuk daude bertan. Eskoriatzan erasoak egon izan direnean erreferentziazko taldea izan da eman beharreko pausuak zehazten laguntzeko, zalantzak argitzeko, akonpainamendu lanak egiteko... talde feministezko erreferentziazko elkartea da.

Eskoriatzako udala

Eskoriatzako udalean ez da berdintasunerako sail edo batzorde propiorik existitzen eta, horrez gain, ez dago berariazko arduradun teknikorik.

Azken urteetan, berdintasunerako plangintza propio eta antolaturik egon ez bada ere, udaletik lehenengo pausuak ematen hasi dira eta mugimendu feministarekin harremana sortu eta elikatzen dute.

Bukatzeko, baliabide ekonomikoei dagokienez, orain arte ez da berariazko partida ekonomikorik gorde berdintasuneko ekintzak aurrera eramateko. Aurreko urtean prebentziotik egingo ziren ekintza bereziak egiteko partida txiki bat gorde zen.

Indarkeria matxista

Alor honetan ere talde feministak eta Eskoriatzako udala aipatu behar ditugu.

2015ean Clara Campoamor Elkartarekin batera indarkeria jasan duten emakumeen artatzerako barne protokoloa landu zuen udalak.


Horrez gain, jaietarako mugimendu feministarekin elkarlanean sortutako protokoloa ere badago. Helburua jaietatik haratago, egun puntualetara ere zabaltzea da, jarraipen minimo bat eduki ditzan.

Talde feministei dagokionez, sentsibilizaziora eta salaketa sozialera bideratutako lana egiten du gehienbat, aurrez esan bezala, egindako ekintzen artean jai eremuak espazio seguru izatera bideratutako lanak edota erasoen aurkako salaketak daudelarik. Lan hauek 2023tik udalarekin batera elkarlanean egiten dira.


GALDETEGIAREN ETA ELKARRIZKETEN BIDEZ JASOTAKO

IRITZIEN LABURPENA:

Herrian genero-berdintasunaren lanketa



Lehenik eta behin, galdetegiaren bidez jasotako iritziei erreparatzen badiegu, genero berdintasunaren inguruan herrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzeari erreparatzen badiogu, ikusi daiteke emakume gehiagok parte hartzen dutela. Hala ere, herritarren gehiengoa (%80a) antolatzen diren gauzetara joaten saiatzen da edo inoiz parte hartu izan du.





Herriko egoeraren pertzepzioa

Grafiko honetan dauden datuei erreparatuz, ikusi dezakegu, orokorrean, adostasun maila altua dagoela, hau da, erantzun duten gehienek uste dutela Eskoriatzan emakumeak era aske eta duinean bizi direla.

Hala ere, emakumeek gizonen baino bajuago puntuatu dute euren bizi esperientziatik. Datu esanguratsua izan daiteke aurrea begira aztertzeko.

Herri mailan dagoen berdintasunarekiko sentsibilizazioaren inguruan galdetzean hurrengo erantzunak jaso dira:



Bi grafiko hauetan ikusi daiteke galdetegia erantzun duten herritarren artean dagoen sentsibilizazioaren inguruko pertzepzioa: emakumeen sentsibilizazioa gizonena baino puntu bat altuagoa da. Gainera, haien buruak altuago puntuatu dituzte besteek baino.



Elkarriketetan aurrez gazteen atalean aipatu den polarizazioa adin tarte guztietan ere gertatzen ari dela jaso da. Gaiarekiko atxikimendu maila oso ezberdina dagoela herritarren artean eta batzuk oso inplikaturik dauden bitartean beste batzuk geroz eta urrunago daudela aipatu da. Bereziki gizonak identifikatu dira jarrera inobilistago batean, nahiz eta emakume batzuen artean ere gaiarekiko asetasun puntu bat badagoela aipatu den. Hori horrela, posturak hurbildu eta polarizazio hori desagiteko beharra aipatu da.


Bestalde, galdetegiaren erantzun maila oso txikitat jo da, eta bereziki gizonezkoen erantzun kopurua. Hori herrian gaiarekiko, eta bereziki gizonen artean, dagoen interes faltarekin, eta aurrez aipatutako polarizazio eta asetze egoerarekin lotu da, besteak beste.

Indarkeria matxista

Indarkeria matxista galdetegian eta elkarriketetan landu den gaia izan da. Beraz, jarraian, bi informazio iturri horietatik lortutako datuak azalduko dira.

Indarkeriari aurre egiteko dauden baliabide eta laguntzek duten garrantzia aintzat hartuta, horien berri herritar guztiek izan dezaten etorkizunerako erronka gisa ageri da.






Galdetegian egunerokoan ematen diren egoera matxistak identifikatzeko gaitasunaren inguruan galdetu zitzairen eta emakumeen puntuazioa (5etik 4koa) altuagoa izan bada ere, gizonen batz bestekoa ere nahiko altua izan da (3,81ekoa). Beraz, esan daiteke elkarrizketatuak egoera matxistez kontziente direla. Jarraiki, galdetu zitzairen ea horrelako egoera baten aurrean nora jo jakingo luketen, eta kasu honetan, puntuazioa apur bat jaisten da, baina esanguratsua da batz bestekoa 3,57koa izatea.

Elkarrizketetan, bi gai hauek ere landu izan dira eta erantzunak antzekoak izan dira, nahiz eta zehaztasunak gehitu ziren azalpenen bidez. Egoera matxista moten arabera identifikatzeko gaitasuna handiagoa edo txikiagoa dela aipatzen zuten batzuek, hau da, mikromatxismoak identifikatzeko zailtasun gehiago dituztela. Horrekin batera, nora joko luketen galdetzean gehienek mugimendu feminista aipatu zuten, udalean erreferentziazko pertsonarik ez egotea hutsune bezala identifikatu ostean.

Gizonen arteko eremuei erreferentzia egitean, bai galdetegian eta baita elkarrizketetan ere, aipatu da jarrera matxisten onarpen handiagoa dagoela. Hala ere, azpimarratu da azken urteetan gauzak aldatzen joan direla eta egoera horien aurrean gero eta limite gehiago jartzen direla.



Aurreko grafikotik ondorio ugari atera daitezke Eskoriatzako errealitatearen inguruan. Lehenengo ondorio, eta argiena da, herriko espazio ugarian identifikatu eta sufritu direla bazterketa, irain edo bestelako indarkeriak emakumeen, feminismoaren edo LGBTI+ pertsonetikiko. Espazio horien artean, diferentzia nabarmenak daude, eta batez ere, emakumeen eta gizonen iritzien artean alde esanguratsuak ikusten dira.

Indarkeria gutxien jasan edo identifikatu diren espazioak osasunaren arloa, parte hartze politikoak, kultura eta zerbitzu publikoak dira. Kasu hauetan gizon eta emakumeen pertzepzioa antzekoa izan da. Aldiz, indarkeria gehien jasan edo identifikatu den espazioa, espazio publikoa izan da. Galdetegia erantzun dutenen emakumeen %45ak eta gizonen %38ak adierazi du. Kopuru horiei jarraiki, lagunaren eta kuadrillako espazioa eta aisialdia azaldu dira, hauetan ere emakumeen eta gizonen iritziak parekoak izan dira, proportzionalki. Esan daiteke, eremu “informaletan” indarkeria gehiago jasaten eta identifikatzen denaren sententzia nabarmena dela.



Emakumeek, aipatutakoez gain, laneko eta familiako espazioak ere identifikatu dituzte. Gizonek, aldiz, hezkuntza eremua. Egoeraren azterketa zehatzago bat egiteko, lanketak planteatzeko edota esku hartzeak aurrera eramateko lehentasunak non dauden ikusteko baliagarria izan daiteke jasotako informazioa.

LGBTI+ eta begirada intersektionala

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren egoeraren diagnostikoa egiteaz haratago, prozesu honetan beste bi faktore kontuan hartu nahi izan dira: LGBTI+ errealitatea eta begirada intersektionala.

LGBTI+ errealitateen inguruko diagnostiko propio bat egitea komeni bada ere, diagnostiko hau osatzeko egindako elkarrizketetan eta galdetegian oinarritzko informazioa jaso da eta jarraian horren gaineko irakurketa azalduko da.

Begirada intersektionalari dagokionez, datu ofizialek sexuaren arabeko bereizketa soilik jasotzen duten arren, herritarrengan eragiten duten bestelako ezaugarriak ere aztertzeo saiakera egin nahi da. Hau da, genero identitatearen erpin guztiak eta identitatea osatzean eragiten duten bestelako faktoreen (besteak beste: adina, jatorria, klasea...) arteko gurutzaketek sortzen dituzten egoerak kontuan hartzen saiatu nahi dira; kasu honetan ere, elkarrizketetatik eta galdetegitik jasotako informazioa jarraian azalduko da.



LGBTI+ pertsonen bizitza aske eta duinaren inguruan galdetzerakoan, ikusi daiteke gizon eta emakumeen iritziak nahiko ezberdinak direla. Gizon gehiagok uste dute Eskoriatzan LGBTI+

pertsonak era aske eta duinean bizi direla (5eko eskalan 3,69ko puntuazioa eman diote). Emakumeen artean, aldiz, 3,08ko bataz bestekoa izan da. Esan bezala, gai honetan zentratutako diagnostiko bat egitea komeniko litzateke herritar horien errealitateetara hurbiltzeko eta beharrezko esku hartzeak planteatzeko.

Emakumeek sexu/genero diskriminazioaz gain bestelako arrazoiengatik ea diskriminazioa jasaten duten galdetzerakoan, beste galderen erantzunekin konparatuz, puntuazio altuak aterara dira. Emakumeen bataz bestekoa 3,93koa izan da, eta gizonena 3,81ekoa. Honek argi uzten du, aurrera begira bestelako arrazoiek daukaten inpaktuan ere arreta jarri behar dela.

Elkarriketatik ateratako informazioari dagokionez, hurrengo ondorio nagusiak aterataz daitezke:

- Gaur egun Eskoriatzan “sexiltoa” (batez ere) gazteen artean ematen den fenomeno bat izaten jarraitzen du.
- Ezjakintasuna, nahasmendua... nabari dira LGBTI+ kolektiboaren inguruan hitz egiterakoan.
- Herri txikia izateari atxikitzen diote gai honekin dagoen errealitatea.
- Landu beharreko gai bezala identifikatzen dira.

ONDORIOAK

- Udaletik genero-berdintasuna sustatzeko lanak berria da eta urte batzuetako ibilbidea beharko du egonkortzeko.
- Berdintasun politikan udalak ibilbide laburra eta antolatu gabekoa izan du. Dena den, gaia lantzeko beharra adierazi da behin baino gehiagotan.
- Azpiegiturari dagokionez, udalean egitura propiorik ez egoteak dinamika jarrai bat izatea zailtzen du, etorkizunean hori lantzea komeniko litzatekeelarik.
- Berdintasuna zeharka udaleko esparru guztietan lantzeko hainbat langileren artean ezagutza eta segurtasun falta dago. Interesgarria litzateke udal langileek genero-ikuspegia beren lanetan txertatzeko prestakuntzak burutzea.
- Bide horretan, plangintza egituratu baten beharra ere bada. Hori sortzeko oinarri izango da dokumentu hau.
- Talde feministari dagokionez, egonkortuta dago eta herrian eta herritarren artean erreferentzialtasuna du (oraindik ezagutzen ez duen jendea badagoen arren). Hori positiboa da, izan ere, herritarenganako gertutasuna eta eragiteko gaitasuna adierazten dute.
- Talde feministaren eta udalaren arteko komunikazio kanal eta modu formal bat adostea interesgarria izango litzateke.

- Horrez gain, indarkeriari dagokionez, lehentasunezko gaien artean atera da. Bide horretan sentsibilizazioan, salaketan zein esku-hartzean urratsak eman beharra azpimarratzen delarik.
- Hala ere, garrantzitsua da dauden baliabideen berri izatea herritarrek, eta hurrengo urratsak definitzerakoan kontuan hartzea.

Aurrera begirako erronkak

Bukatzeko, aztertutako guztiarekin, diagnostiko prozesuan zehar identifikatu diren erronka nagusiak jasoko ditugu. Hala ere, errealitatea etengabeko mugimenduan dago eta ondorioz, ondoren jasotzen dena ez da zerrenda mugatu bat, bidean sortu edo identifikatzen diren hutsune, eginbehar edo gabeziek ere tokia izan dezaketelarik etorkizuneko planean.

**Atal hau EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren egituraren arabera antolatuko da. Dena den, erronka bakoitzak txosten honetako zein atalekin lotura duen ere jasotzen da.*

GOBERNU ONA

- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Ohiko rol tradizionalak gainditzten dituzten udal langileei ikusgarritasuna ematea, eredugarritasuna eta erreferentzialtasuna lantze aldera.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Garbiketa zerbitzua eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren lan baldintzen jarraipena egin eta etorkizunean udaletik zuzenean kontratatzeko aukera aztertu.
- [Udalaren osaera politikoa eta teknikoa] Berdintasuna zeharka lantzeko udal langile zein politikarien ezagutza bermatzea:
 - [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Burutzen diren hirigintzarekin lotutako plangintzetan genero-ikuspegia txertatzea. Horretarako lan horietan eskuhartzen duten pertsonen sentsibiltatea eta formazioa landu.
 - [Gizarte zerbitzuak eta osasuna] Ematen den arreta balioan jarri eta lana genero-ikuspegia kontuan izanez burutzeko baliabidez hornitzea langileak.
- [Udal komunikazioa] Indarrean dauden euskarrietan komunikazio ez sexista erabiltzen dela bermatzea.
- [Udal komunikazioa] Politikari zein teknikariak hizkuntzaren erabilera ez-sexistan eta komunikazio inklusiboan trebatzea.
- [Genero-berdintasuna] Udaletik berdintasun politikak garatzeko eta udal langileek zeharlerrotasunez berdintasuna beren lanean integratzeko formazio plana diseinatu eta burutu.
- [Genero-berdintasuna] Udalean genero Berdintasuna lantzeko egitura bermatzea, etorkizunean diseinatzen diren plan eta ekintzak kudeatuko dituen.
- [Genero-berdintasuna] Emakumeen ahalduntzea sustatzea eta askotariko emakumeak sartzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.

- [Genero-berdintasuna] Herriko eragile eta norbanako feministen ekarpenak jaso eta elkarlana bideratzeko kanal formalak sortzea.
- [Kirola] Kirolera zuzendutako politika publikoen eta dirulaguntzen azterketa egitea eta behar izanez gero genero berdintasuneko klausulak txertatzea.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- [Kultura] Kulturgintzan ohiko rol tradizionalak gainditzea.
- [Kirola] Herriko kirolean dagoen desoreka murriztea, emakumezkoen partehartzea sustatuz, eta horretarako kirol esparrua beraientzat espazio segurua izan dadin landuz.
- [Kirola] Herriko emakume kirolarien eta herrian bertan kirola egiten duten emakumeak bistaratzea.
- [Kirola] Herriko kirol taldeetako erabaki guneetan emakumeen parte hartzea sustatzea.
- [Kirola] Kirol taldeen artean gaiaren inguruko sentsibilizazioa eta kontzientzia lantzea eta egoeran esku hartzea.
- [Zahartzaroa] Emakume nagusien ahalduntzea sustatzera bideratutako formazio eta sentsibilizazioa lantzea, beraiek ere gizarte aldaketan subjektu aktibo izan daitezen.
- [Zahartzaroa] Emakume nagusien saretzerako dinamikak bultzatu eta babestu.
- [Genero-berdintasuna] Gai honen inguruan gazteen iritziak eta beharrak jasotzeko tresna aproposak aztertu.
- [Genero-berdintasuna] Aretxabaletan sortzen ari den Emakumeen Etxearekin harremana eta aliantzak egiteko aukera aztertu.
- [Genero-berdintasuna] Diagnostiko honek jaso ez dituen, edo azaletik jaso dituen, emakumeen errealitateetan sakontzeko bideak martxan jarri: emakume migratuak, adineko emakumeak eta landa eremuko emakumeak batez ere.
- [Gazteria eta hezkuntza] Gazteen artean ematen diren rol tradizionalak apurtzeko lanketa posibleak aztertu.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Zapalkuntza anizkoitzek emakume migratuen bizitzetan nola eragiten duten kontuan hartuta, emakume horien ahalduntzea sustatzea.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratuen saretzea sustatzeko baliabideak sustatu.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume ezberdinen saretzea sustatzeko baliabideak sustatu.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Emakumeen kaleetako presentzia sinbolikoa lantzea.

GIZARTE-ANTOLAKETA BIDEZKOA, BERDINTASUNEZKOA ETA JASANGARRIA

- [Sozioekonomia] Enpleguaren alorrean ematen den segregazio horizontala gainditu eta enpleguan argazki orekatuagoa lortzera bidean urratsak ematen jarraitzea.
- [Zaintza lanak] Zaintza eta etxeko lanetan gizonetzkoen inplikazioa sustatzea.
- [Zaintza lanak] Kontratazio pribatu bidez asetzen diren zaintza beharretan oinarritzko baldintzak bete daitezen, kontzientziazioa lantzea, horretarako materiala informatiboa sortu eta zabalduz.
- [Zaintza lanak] Zaintza modu integral batean eta gaian inplikatuak dauden eragile eta herritarrekin batera lantzeko bideak irudikatu.
- [Gazteria eta hezkuntza] Hezkuntza eragile eta komunitatearekin batera genero-berdintasunean etengabeko formaziorako bideak definitzea, genero-berdintasuna modu isolatuan eta arazo zehatzei erantzunez lantzen den gaia izan ez dadin.
- [Gazteria eta hezkuntza] Dagoeneko martxan dauden eta emaitza positiboak dituzten dinamikak mantendu eta indartzea.
- [Gazteria eta hezkuntza] Haurrengan eragiteko guraso eta gainerako herritarren erreferentzialtasuna lantzea.
- [Gazteria eta hezkuntza] Hezkuntza eragile, komunitatearen eta udalaren arteko koordinazio/lanketa mahaia sortzea.
- [Gazteria eta hezkuntza] Herriko hezkuntza eragileek beren jarduna burutu eta lanketak egin ahal izateko espazio aproposak dituztela bermatzea garrantzitsua litzateke.
- [Migrazioa eta aniztasuna] Emakume migratuek egiten duten lana eta horren garrantzia balioan jarri eta hori duintzeko moduetan sakontzea.
- [Maskulinitateak] Herriko gizonekin maskulinitateen lanketa egiteko bideak aztertzea.

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

- [Jaiak] Jai eremuak zapalkuntzarik gabeko espazio seguruak izan daitezen sentsibilizazio eta prebentzio neurriak lantzen jarraitzea.
- [Jaiak] Burutzen diren ekintzetan eta jai egitarauan genero-berdintasuna bermatzea.
- [Espazioaren erabilera, urbanismoa eta mugikortasuna] Herriko eremu kaleak seguruagoak egitea; horretarako, gune ilunak identifikatu eta horiek eraldatzeko neurriak hartuz.

- [Genero-berdintasuna] Sentsibilizazioan, salaketan zein esku-hartzean lanean jarraitzea eta indarkeria jasaten duten emakumeei tratu egokia bermatzea.
- [Genero-berdintasuna] Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea eta herritar guztiek indarkeria matxistari aurre egiteko dauden baliabideen berri izan dezaten bermatzea.

Bukatzeko, herritarrek, luzatutako galdetegian, aurrera begira lehentasuna non jarri beharko litzatekeen galderari honela erantzun diote:

Eskoriatzarren iritziz, berdintasunean zerk du lehentasuna?

